


[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
621. zkia.
XV. urtea
2007ko uztailaren 6a

**Ibon Gabilondo,** triatleta

# «Norberaren ahalmenaren mugaraino iristea da triatloia»

[ GEHIGARRIA ] IDAZMAKINAK • [ KULTURA ] JESUS AZPIAZU

# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!*



**ORDUTEGIA**
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

---

TEMPUR · laxy · sonpura · OLDSAN · MASH

sonpura
luis soriano

**Bi aukera**



**ametsetan flotatzeko**

**LATEX**
Latex Micro Koltxoia
Somier artikulatua
Burukoa
Neurria: 90 x 190




**THERMOLASTIC**
Thermolastic Custom Koltxoia
Somier artikulatua
Burukoa
Neurria: 90 x 190




Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

# LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



# ZOZOAK BELEARI...



**SARE GURRUTXAGA**

San Juanak pasa dituk eta horrekin batera udari ongietorria eman zioagu, Aitzol. Eguraldi goxoa eta egun luzeak aurretik. Eguzkitako kremaren usainak ekartzen dituen oroitzapen freskoak lagun, bizipozez nabari zitekek jendea hara eta hona.

Neguzaleak direnentzat ere esperantza iturriak irekitzen dituk. Egunik luzeena pasatu denez, *kuentatrasa* martxan jarri eta egunik motz eta hotzenerako lasterketa hasia duk jada.

Goenkaleko urteroko tiro hotsezko amaiera irekia, San Ferminetako entzierroak, telesail guztien adioa, *Mr. Bean* eta *just for laughs*-en errepikapen amaigabeak, informatiboetako aurpegi berriak... TB-k ere udaraz gozatzera bultzatzen gaitik, kalera ateratzera, etxean ez gelditzera.

Leku guztiak nahasten dituk. Batzuk oporretan, besteak lanean. Denda batzuk itxita, beste batzuk gainezka. Gaztetxoenak urte guztirako xoxak irabazi nahian lanean jo ta sua. Zaharrenak goizeko lehen trenean Debako hondartzan tokirik onena hartzera. Parrandak, moskitoak, izozkiak, terrazak, gastuak, gastuak, gastuak...

Guzti hori eta gehiago duk hasi berri den urtaro hau.

Desmadre pixka bat ondo zatorrek urtean behin, gainontzeko hilabeteetako seriotasuna orekatzeko besterik ez baduk ere, ez al duk uste? Guk ere deskansotxo bat hartuko al diagu?

**«San Juanak pasa eta udari ongi-etorria eman zioagu»**

**SARE**

**«Uda. Aurten nora? Horra duda.»**

**AITZOL**

**AITZOL GARMENDIA**

Uda. Aurten nora? Horra duda. Duda muda. Azken orduko guda. Bainujantzia nun da? Sartu niki ta muda, dirudit Neruda. Ez dun Sare? Hi bai bare-bare, itsasoaren pare, uda osoa aurrez aurre.

Oporren arrastoaren usainean jarraituko dinagu bitartean beste batzuk, ordutegi intentsibo edo ostiral ingeles horiei inbidiaz beteta begi bazterretik begira. Irakasleen pagotsari muturra okertuz edo ikasle garaietako momentu batzuk burua ekarriz. Aprobatuen udak ezagutu dituztenek behintzat!

Bitartean Espainiako turismoak Europako errekorrak hausten jarraituko din. Destino turistiko masibo eta esplotatuenetako bat izateaz gain barne-turismo tasa handienetako bat duelako. Itxuraz populazioaren %10-etik behera bakarrik joaten dun atzerrira oporretan. Hau dena nahiz eta pelotazo urbanistikoa europar ekialderantz joaten ari den. Gero Europar Batasuneko kapital eta lanaren mobilitateari buruz ariko ditun gure artistak Bruselasen. Oporretarako ere ez dun jendea irteten-eta!

Espainiako bizitza kalitatea, gastronomia eta abar izango direla botako diten batzuk. Generalisimoaren garaiko itxitasun eta ermetismoaren ondorioak izango dutela errua beste batzuk. Agian denek arrazoi.

Gozatu udaren xarma Sare. Etxetik urruti hoa. Baina ziur Elgoibar eta Euskal Herria hirekin eramango ditunala.

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

> UDIA, BERA JAKIA TA BERA GONIA

Esaera zaharra

## Kuadrillategi

Irteerak, jolasak, tailerrak, asteburu pasak, barreak, negarrak, hasarreak, bronkak, kanpoan lo egin beharra, lagun berriak, amodioak, kotileoak... eta nola ez, euskara, Kuadrillategiko bizipenak izan dira.

Lerro hauekin eskerrak eman nahi dizkizuegu Kuadrillategin parte hartu duzuen gaztetxo guztiei. Izan ere, zuek gabe hau guztia ez zen posible izango. Ondo pasatzeko izan duzuen gogoak, erakutsi duzuen parte hartzeak, euskara landu eta bultzatzeko nahiak eta gugan eta zuen artean mantendu duzuen errespetuak... giro ezin hobea sortarazi du. Benetan, portatu zarete.

Ez ditugu alde batera utzi nahi gazte hauen gurasoak. Beraien aldetik eskaini diguten laguntza eta momentu guztietan erakutsi diguten konpromisoa benetan eskertzekoa izan da. Zuek gabe ere, Kuadrillategi ez zen posible izango.

Eskerrak baita ere egitasmo honetan sinistu eta aldi berean babestu duzuen guztioi.

Azkenik, Nereari, gure "jefa supremari", eskerrik asko gugan jarri duzun konfiantzagatik. Badakigu, batzuetan, pazientzia galanta izan duzula gurekin, baina jakin ezazu, koordinatzaile izateaz gain lagun ere bazaitugula.

Honek guztiak, hurrengo urtean ere zuekin izatera bultzatzen gaitu.

Eskerrik asko, benetan.

**ANDER ETA EUKENE**
**(KUADRILLATEGI EGITASMOKO SUSPERTZAILEAK)**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

**1.** Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
**2.** Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
**3.** Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
**4.** Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
**5.** Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]
barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

ZUZENDARIA Enrique Bert KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Irati Agirrezaldegi PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• Plaza Txikiko OTAren makina ez dabil: "Sinestezina da, baina Plaza Txikian OTA jarri zutenetik, denbora gehiago egon da makina izorratuta martxan baino. Azken hilabetan ez dago aparkatzeko lekurik, kotxez gainezka egoten da Plaza Txikia egun osoan. Udaltzaingotik esan zutenez, udaltzainak ibiltzen dira denbora kontrolatzen, baina nik auto mordoa ikusten ditut bertan goizetik iluntzera arte".

• BARRENen ez da Arnaldo Otegiren aldeko manifestazioaren berri eman: "Azkenaldian Elgoibarren izan den manifestaziorik handiena izan zen Arnaldo Otegiren alde eginiko azkena eta BARRENen ez da ezer agertu. Ez zait normala iruditzen".

• Katuentzako jatekoa lagatzen dute kalean: "Pedro Migel Urruzuno kaleko bazter batean katuentzako jatekoa lagatzen dute. Katu mordoa pilatzen da ingurune honetan eta etxeetako lorategi pribatuetara sartzen dira. Bertan kaka egiten dute eta behin, katu batek umeak ere eduki zituen gure etxeko atarian. Ezin da jatekorik ipini kalean. Katuak nahi dituenak eraman ditzala bere etxera eta zaindu ditzala bertan, baina guk ez dugu katurik nahi gure etxean. Dena zikin-zikin eginda gelditzen da eta umeak ere gure etxeko loralegian ibiltzen dira katuen atzetik. Ezin dugu horrela jarraitu".



• Udalak ez ditu jartzen txakurren kakak jasotzeko poltsak: "Herrian toki konkretu batzuk daude txakurren kakak jasotzeko poltsekin, baina azkenaldian poltsak falta dira. Udalari eskatu nahi nioke poltsa hauek jartzeko, txakur jabeentzat oso ondo etortzen dira-eta".



• Mintxetako haur parkea txiki gelditu da: "Mintxetako haur parkean ume mordoa ibiltzen da eta txiki gelditu da. Lekua soberan dagoenez, parkea handitzeko eskatuko nuke. Bestalde, 1etik 8 urterako umeentzako parkea dela jartzen du, baina ume txikientzako ez da egokia. Urte beteko umeentzako ziburuak jartzea ondo legoke, zakarrontziak eta jarleku berriak bizkarrekoarekin, haurdun dauden emakumeak eta nagusiak jarri ahal izateko".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN luma

## Itzal kurbatuak eta grabitazioaren legea

Betidanik existitu izan dira fededunak eta behatzaileak. Parmenides itzal kurbatuek nahasi eta Erastotenesek Lurraren erradioa kalkulatu zuenetik 2.000 urtetik gora igaro dira eta denbora luze horretan fedea eta behaketaren arteko dialektikak David eta Goliathen arteko borroka besterik ez du erakutsi. Hasiera batean, fededun bat berak ere ez zuen Lurra borobila zela onartu. Guzti horiek behatu zuten, ordea, sagar bat jatean eskutik askatuz gero lurrera erortzen dela. Newtonek, erori ez, baizik eta erdira joaten zela azaldu zuen. Eta jainkoa galdu egin zen pixkanaka-pixkanaka, goia eta behea desagertzearekin batera zeruari bere hektarea guztiak desjabetu baitzizkioten, poliki-poliki.

Bi gorputz elkar erakartzen dira, euren masa zenbat eta handiagoa izan orduan eta azelerazio handiagoarekin. Azken urte hauetan masa handiko bi gorputz elkar erakartzen dabiltza. Bati aldaketa klimatiko globala deitzen diote. Besteari energia nuklear izena ematen diote, tamainak estrapolatuz sagar bat madari bihurtu eta bertatik energia lortzea, hain zuzen ere. Eta badirudi aldaketa klimatikoak sagarren heltzea faboratzen duela, fededunik sutsuenari ere ingurugiroaren egoera interesatzen hasi baitzaio. Eta bi gorputzak hurbiltzen ari dira eta egunen batean talka egingo dute. Eta orduan ez da dialektikarako lekurik gelditutko. Inork ezin baitio jainkoari aurre egin, eta jainkoak, zeruko hektareak galdu zituenetik Wall Streeten hartu baitu ostatu.

Ni, behintzat, itzal kurbatuak ikusten hasia naiz...

***Antton Alberdi***

# BOTAINK!

Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Harrotasun Eguna ekainaren 28an ospatu zen. Hona hemen Botaink! atalean gai honi buruz jasotako iritzi batzuk:

***Hogei:*** gauza bat da onartzia aurrerapusuak eman direla eta beste bat homoek libreki beren sexualitatea adieraz dezaketela.
Oraindik ere Elgoibarren armairuak itxiak mantendu behar dira.

***Lingam:*** uste det Elgoibarren eta inguruan ez gaudela hain gaizki. Gizartea kontzientziatzen doa gutxinaka eta behintzat ez dago homosexualen aurkako legerik, beste herrialde batzutan bezela.

***Argidago:*** denok gera bisexualak jaiotzetik, baina gure izaera eraikitzen dixen neurrixan orientazio sexuala ere aldatzen dixe.

***28:*** jakin badakigu gure herrian homosexualak badaudela, baina ez dakiguna da noiz bizi ahal izango diren homosexualak bezala. Nire ustez, herri honetan zaila da, benetan.

***;0):*** heteroak, homoak edo beste edozer aurretik, sexualak gara eta punto.

**www.elgoibarren.net**



## [AKORDATZEN NAIZ]



### MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

# «Gabonak»

Gabonak beti familixa giruan pasatzen genduzen. Gaur egun ohittura hori galtzen hasi da: askok oporretara juteko aprobetxatzen dittue Gabonak. Guk oindiokan aguantatzen dogu. Familixa gutxi gera, eta danok batera pasatzen doguz Gabonak. Gabon gabian afari bat egitten dogu, baiña ez da lehen bezela.

Oiñ, urtian zihar zelebrazio mordua izaten dira, afari eta bazkari asko egitten dira familixan, eta Gabonak ez dira haiñ inportantiak: azkenian bat gehixo izaten da. Lehen, konpota usaiña eta amama karakolak ipintzen, danok sukaldian bueltaka..., beste giro bat zan.

Erregalorik ez zan egitten Gabonetan. Errege egunian zeozer, detailleren bat, baiña ezer gitxi. Elgoibarrera etorri giñan lehenengo urtian, gure etxiak mirador txiki bat zakan eta hantxe ipiñi naban zapatia silla gaiñian. Goizian jun nitzanian hiru kaja nakazen neretzako, hiru! Zelako inpresiua egin zidan! Ez zan gauza haundixa izango, baiña hiru kaja eukitzia sekulakua zan. Urte haura oso politta izan zan.



Gaur egungo umiak penia ematen die. Nik euki naban inpresio hori sekula ez dabe eukiko. Danetik dauke, nahi baiño lehenago ematen jakue dana. Nik beti "La Mariquita Perez" eskatzen naban, oindiokan existitzen da. Haren erropak asko gustatzen jatazen, sonbrerua, abrigua, botiñak..., oso karua zan. Sekula ez jatan etortzen. Azkenian, eskatziari laga nion. Nere koiñatari ere gustatzen jakon, eta oin dala 10 urte edo erosi ziuen alabak. Harek lortu dau, baiña nik oindiokan ez...

## [GURE BERBAK]

### *Fonologia (16)*

Fonologiari amaieria emateko, ahozko jardunian gertatzen diran alternantzia eta bilakabide batzuen berri emango dogu:

- *J / K* ALTERNANTZIA
  *Joño!* *majiña bat*
  *Joño, ez daukak sasoi makala!*
  *Majiña (b)at lagun bildu ziran!*

- *RS / ST*
  *konbersazio / konbestazio*

- *L / N* ALTERNANTZIA
  *lumerua* *lelengo*

- *R / B* ALTERNANTZIA
  *oratu / obatu*

- *L / R* ALTERNANTZIA
  *komurgau* *armuzau*
  *Bai gizona! Gu komurgau giñan inguruan.*
  *Edarki armuzau gendun, ba!*

- KONTSONANTIAK SORTZiA
  *barkazixua* *surtara bota*

- ADITZ-TALDIETAKO KONTRAKZIUAK
  *Egin bihar dot ➠ E(g)in bi(ar) dot / bi(d)ot / biot*

*Jesus Mari Makazaga*



## ESKERTZA

2007ko uztailaren 4an hil zen
***Jose San Martin Totorikagüena***ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



GUREAN BAI-MERKATARITZA

# OSTALARITZAN ERE EUSKARAZ

*Elgoibarko 41 ostalarik konpromisoa hartu dute euren jatetxeetan eta tabernetan euskararen erabilera handiagoa izan dadin. Horretarako, Gurean Bai-Ostalaritza hitzarmena sinatu dute asteon. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea eta Udala dira proiektuaren eragile nagusiak. Horrela, Gurean Bai-Merkataritza hitzarmena bere garaian sinatu zuten 151 dendei 41 ostalari gehitu zaizkio. Hitzarmen honen helburua da herrian hain garrantzitsua den ostalaritza sektorean ere euskarak behar duen tokia izatea.*



Elgoibarren, gizarteko hainbat sektoretan euskararen erabilera bultzateko, Gurean-Bai proiektua ipini zuten abian 1996an Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Udalak.

Herriko elkarteekin jardun zuten lehenengo lanean eta merkatariekin ondoren. Bi sektore horiek bideratuta daude jadanik eta ostalaritzari ekin diote orain. Astelehenean sinatu zuten hitzarmena herriko ostalariek Txarriduna hotelean. Proiektuarekin bat egin ostean. Bakoitzak bere taberna zein jatetxean euskararekiko hartutako konpromiso zehatzak betetzea izango da hurrengo pausua.

### SEKTOREAREN ARGAZKI OROKORRA

Elgoibarko Izarran Gurean Bai proiektuan lanean diharduen Amaia Lasagabasterrek esan digunez, "ukaezina da ostalaritza sektoreak nolako garrantzia duen herritarren bizitzan".

Ostalaritza sektorean euskarak duen egoeraren argazki orokorra egin ondoren jarri dute abian hitzarmena eta ostalarien %80ak baietza eman dio proiektuari. Besteak beste aztertu dute langileen hizkuntza gaitasuna eta ikusi dute %61 euskalduna dela. Errotulazioari dagokionez, neutroak nagusitzen dira (%41) eta euskaraz daudenak datoz gero (%24).

Hitzarmena borondatezkoa, doakoa, irekia eta elkarlanean oinarritua da. "Nahi duenak parte hartzen du eta borondatez hartzen diren konpromisoetan oinarritzen da, bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokituz", dio Amaia Lasagabasterrek.

Taberna eta jatetxe bakoitzean euskarak duen egoeratik abiatuta, bakoitzaren neurriko plana diseinatuko dute, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera gehitzeko asmoz. "Erabakiak ostalarien esku egongo dira beti, eta proiektuaren eragileon egitekoa izango da beraiek hartutako konpromisoak betetzeko laguntza osoa eskaintzea".

## DATUAK (2007)

### Hizkuntz gaitasuna




### Errotulu nagusia




### **GUREAN BAI - Ostalaritza** Hitzarmena sinatu dutenak






**Alfredo Etxeberria** Udala

“Ostalaritzak presentzia garrantzitsua du eta ezinbestekoa da arlo honetan ere euskarari ateak irekitzea. Eskertzekoa da ostalariek proiektuari egindako harrera. Udalak bere esku dauden bitartekoak jarriko ditu proiektuak aurrera egin dezan. Egindako ahaleginak eragina izango du kalitatean. Bezeroek eskertuko dute egindako lana”.



**Ane Zabala** Elgoibarko Izarra

“Hitzarmena sinatzeko erabakia hartu duzue eta konpromisoak ere hartuko dituzue. Elgoibarko Izarratik eta Udaletik bidea erakutsiko dizuegu, baina pausoak zuek eman behar dituzue. Gure esku dagoena egingo dugu ibilbidea emankorra izan dadin, eta zuok taberna eta jatetxeak euskaldunagoak izateko esfortzua egingo duzuelakoan gaude”.

## IMANOL URAIN

### Txarridunako jabea



## «Langileek euskara erabil dezaten ahaleginduko gara»

**Zergatik egin duzu bat Gurean Bai-Ostalaritza proiektuarekin?**
Euskara gure hizkuntza delako eta ea modu honetan lortzen dugun jende gehiagok euskara erabiltzea.
**Zein konpromiso hartu duzu?**
Batetik txartelak, kartak... euskaraz eta gaztelaniaz ipintzeko konpromisoa; bestetik, gure langileek intentzio gehiago jartzekoa euskaraz egiteko.
**Orain arte euskara erabili izan duzu lanean?**
Langile gehienak erdaldunak dira baina sukaldariak euskaldunak izanik horiekin egiten dut, baita etxean ere. Bada gurekin lanean Hondurasko mutil bat euskaraz egiten duena.
**Zertan dago zailtasun gehien?**
Langile gehienak kanpotarrak dira. Berez zaila izaten da langileak aurkitzea, hortaz, ezin dugu eskatu euskara jakin dezaten. Baina ahalegina egingo dugu langileek ikas dezaten.
**Ostalaritzan badu tokirik euskarak?**
Bai, hemengo hizkuntza da eta polikipoliki ari da sartzen. Gurera kanpoko jendea etortzen da lotara eta horiekin ingelesa eta gaztelania erabiltzen ditugu. Baina kafetegian eta jatetxean sumatu dut gero eta gehiago egiten dela euskaraz, baita nik neuk ere.

## [ PROTAGONISTA ]



### Unai Arrieta

Ezker-hegaleko eskubaloi jokalariak Bidasoa-Irun taldearekin maila galdu arren, Asobal Ligan jarraitzeko aukera izango du. Izan ere, Eibarko J.D. Arrate taldeak bi urterako fitxatu du. Elgoibarren hasi zuen eskubaloi ibilbidea eta gero, jubenil mailan Eibarrera joan zen. C.D. Bidasoan eta Kanarietako Cadagua Galdarren jardun ostean, berriz itzuli zen C.D. Bidasoara. Orain dela zortzi urte bezala Viktor Debre izango du entrenatzaile, baina ezaguna izatea ez da nahikoa izango titular postua bereganatzeko, Iñigo Salaberria taldekidearekin lehiatu beharko baita ezker-hegalean jarduteko.

## [ NOTIZIA ]

# Bertso udalekuko bertso afari eta bazkarira joateko aukera dute herritarrek

Bertso-barnetegia antolatu du Bertsozale Elkarteak Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. Idotorbe-San Pedroko Aubixa baserrian izango da, uztailaren 14tik 21era bitartean. Ongi pasatzea eta euskara landuz bertsoekin gozatzea da helburu nagusia. Horretarako, besteak beste hainbat bertsolariren bisita ere jasoko dute egonaldiak iraun bitartean.

Bertso-udalekuan egindako lana Aubixan bakarrik geratu beharrean, herritarren artean zabaldu eta gaztetxoen artean bertsozaletasuna sustatzeko asmoz, herritar guztiei, batez ere gazteei, zuzendutako hainbat ekitaldi ireki ere antolatu dituzte.

Uztailaren 16an bertso-tribial erraldoia eta kantaldia egingo dituzte arratsaldeko 17:00etan hasita Mintxetako igerilekuetan. Gaztetxoek kantu saio bat dinamizatuko dute Oskar Estanga musikariaren laguntzaz eta herritarrei abestien letrak banatuko dizkiete eurekin batera kantatzeko.

Uztailaren 20an bertsolarien eta trikitilarien saio berezia izango da herriko kaleetan 18:00etan hasita. Barnetegiko partaideek jardungo dute bertsotan kalea girotu eta bertsoa herrira zabaldu asmoz.



**Afari eta bazkarirako izen-ematea**

Uztailaren 14an bertso afaria izango da Maialen Lujanbio eta Jon Maiarekin; uztailaren 19rako, berriz, bertso bazkaria eta txitxiburduntzia antolatu dituzte. Fredi Paiak eta Oihana Bartrak jardungo dute bertsotan eta trikitilariak ere izango dira.

Ekitaldietan parte hartu nahi duten herritarrek informazio gehiago eskura dezakete Udaleko Euskara Sailean (Kultura Etxean), goizez. Bertso afarirako edo bazkarirako izena emateko ere, bertara joan edo 943 744366 zenbakira deitu beharko dute. Afaritarako txartelak 10 euro balio du, bazkaritarakoak, berriz, 12 euro.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibarko IMHko Heziketa Ziklo Industrialetan jardun duten ikasleek diplomak jaso zituzten barixakuan. Guztira, 107 ikaslek jaso dute diploma alor hauetan: Proiektu Mekanikoen Garapena; Mekanizazio Bidezko Produkzioa; Industri Ekipoen Mantenimendua goi-mailan; eta Mekanizatua eta Instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa erdi-mailan. Ikasketak amaitu eta ikasleetariko asko praktikak egindako enpresetan kontratatuta lanean hasi dira aste honetan dagoeneko. Ikastetxeak ikasle eta irakasleak zoriondu nahi ditu.

# Irukurutzetan ez da pake eolikorik egingo Lurralde Zatiko Planaren arabera



Karakate eta Irukurutzeta artean parke eolikoa egiteko zegoen asmoak hauts asko harrotu zuen bere garaian baina proiektuaren gaineko kezkak isilik dira aspaldian. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Zatiko Planaren arabera, baztertu egin zuten parke eolikoa Karakate eta Irukurutzeta inguruan egiteko asmoa.

Horren arrazoia da hainbat Udalek eskatu zutela inguru horri kultura ondasun izendapena emateko eta estazio megalitikoak bertan egonik multzo monumental mailarekin, gainera. Lurralde Zatiko Planaren arabera 2000. urteko maiatzean Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak prozedura abian ipini zuen gune hori ondasun kalifikatu izendatzeko ez direlako bateragarriak monumentu megalitikoak babesteko eta parke eolikoa bertan egiteko asmoak.

## Ondasun kulturala

Euskal kultur ondarearen baitan bada artikulu bat dioena ondasun kultural bat kalifikatzeko espediente bat irekiz gero, ondasun horri behin behineko babesa ematen zaiola. Hala ere, Lurralde Zatiko Planean Irukurutzetakoa parke eolikoarentzako kokaleku potentzialtzat jo zuten.

Proiektu zehatzen gaineko ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio espedienteak azteztu behar ziren ikusteko parke eolikoen kokalekuek zenbateraino hartzen zituzten estazio megalitikoak eta zenbateraino ziren bateragarriak parke eolikoa eta monumentuak.

Lurralde Zatiko Plana hasieran onartu zenean Irukurutzetako kokalekua II. Multzoan sartu zuten. Bien bitartean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin bilerak egin ziren bi baloreak bateratu eta kultur ondareari ahalik eta kalte txikiena egiteko. Ahaleginak egin arren ez zuten lortu akordio batera iristea eta ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailak erabaki zuen Irukurutzetako kokalekua Lurralde Zatiko Planetik ateratzea.

## Babes sistemarekin ere ezinezkoa

Parke eolikoa egitea erabakiko balitz 10 elementu megalitiko ikutuko lituzke lerrokadura potentziala kontuan hartuta eta beste hainbat oso gertu leudeke. Hortaz, babes sistema bat jarrita ere, ezinezkoa litzateke batzuk ez ukitzea.

Beraz, Lurralde Zatiko Planari erreparatuta esan genezake behin betiko erabakia dela Irukurutzetan parke eolikorik ez egitea. Parke eolikoendako kokaleku posible batzuk erreserba moduan utzi dituzte, eta horietako guztietan ez dituzte kokatuko gainera. Dena dela horien artean ere ez dago Irukurutzeta.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### 1950ean jaiotakoen irteera

Aurten 57 urte betetzen dituzten elgoibartarrek irteera egingo dute uztailaren 14an. 16:30ean Santa Ana kaleko biribilgunetik irten eta Hondarribiara abiatuko dira. Bertatik Hendaiara joango dira itsasontzian eta bisita turistikoa zein erosketak egiteko aprobetxatuko dute. Iluntzean Irungo Enrique jatetxean izango dute afaria eta afalostean dantzaldia. Izena emateko Madalako Gloria dendara jo dezakete interesatuek.

### Alkoholik gabeko jaia

Eibarko eliza ebanjelikoak gazte eta nerabeentzat zapatu arratsaldeetan aisialdi ekintza alternatiboak antolatzen ditu euren baloreak gazteen artean zabaltzeko. Hurrengo hitzordua zapatuan, hilaren 7an, izango da. Alkoholik gabeko jaia eta bideoklipen emanaldia egingo dituzte Madalan 18:00etatik aurrera

### Kiribilka oporretara irailera arte

Kiribilka programak geldialdia egingo du umeak oporretan dauden bitartean. 2 eta 6 urte bitarteko haurrei eta hauen gurasoei zuzendutako egitasmoaren helburua da familietan euskal giroa bultzatzea. Horretarako euskal jolasekin (txapak, soka saltoa, asto lasterketak...) eta kantu eta dantzekin osatutako zortzi saio egin dituzte ostiral arratsaldeetan Plaza Handian; baita kultur ikuskizunak ere. Guraso eta haur asko bildu da saioetan eta antolatzaileak gustura daude jendearen erantzunarekin. Etenaren ostean irailaren 14an bueltatuko dira.

### Institutuko zozketa

Gemma Monreal margolariaren koadro baten zozketa txartelak saldu zituzten BH Institutuko ikasleek ikas-bidaiarako dirua lortzeko. Zozketa egin ostean, 2.373 zenbakidun txartela izan da saritua (erretserba 0992) baina irabazlea ez da azaldu.

## IRAKASLEARI azterketa

### Zientzietako irakaslea

EBA ZILBETI



1 **Zientzietako irakaslea zara. 2+2, beti 4 al da?**
Bai, eta zehaztasunari garrantzia eman behar zaiola uste dut.

2 **Ikasle garaian, letrak ala zientziak zenituen nahiago?**
Biak nituen gustuko eta ondo moldatzen nintzen. Zientziak aukeratu nituen, letrak norberak bere aldetik ikasteko errazagoak direlako.

3 **Ikasle garaian atera duzun notarik txarrena?**
Unibertsitatean atera nuen nire lehenengo suspentsoa, 0tik gertu ibili nintzen. Gogorra izan zen, orduraarte oso nota onak ateratzen nituen.

4 **Azterketetan urduri jartzen zinen horietakoa al zinen?**
Instituto garaian bai, beti uste nuen azterketak gaizki egiten nituela.

5 **Azken momentuan dena buruz ikasteak, balio al du ezertarako?**
Ez. Zientzietan eguneroko lanak asko balio du eta gustura eginez, ez da batere kostatzen. Letretan ere, buruz ikasitakoa ahaztu egiten da.

6 **Irakasle bezala, zein nota jarriko zenioke zure buruari?**
Gauzak ahalik eta ondoen egitea gustatzen zait, ondo esplikatzen. Pazientzia gutxi daukadala esaten didate, eta horrek nota jaisten dit.

7 **Zaila al da suspentsoak jartzea?**
Ikasleek uste dutena baino gehiago. Lan egin ez duenari suspenditzea ez da hainbeste kostatzen. Saiatzen denari suspenditzea zaila da.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala





| GALDERAK | *JAVIER CEREZO* aita | *HARITZ CEREZO* semea |
|---|---|---|
| 1. Nora joango zara oporretan? | 1. 30 urte daramatzagu Oionera joaten. | 1. Oionera, lagunekin jolastera. |
| 2. Zer erreko zenuke San Juan suetan? | 2. Umeekin kartoiak eta egunkariak. | 2. Kartoiak eta egunkari zaharrak. |
| 3. Joaten al zara Mintxetako igerilekuetara? | 3. Bai, baina aurten ez naiz joango. | 3. Gutxi, gehiagotan joango nintzateke. |
| 4. Pena hartu al duzu Reala jaistean? | 4. Apur bat, baina ez naiz futbolzalea. | 4. Ez, ni Athletic-ekoa naiz. |
| 5. Irratia ala telebista? | 5. Telebista, pelikulak gustatzen zaizkit. | 5. Telebista, Smack Daown saioa. |
| 6. Gustuko kolore bat? | 6. Gorria edo berdea. | 6. Gorria. |
| 7. Iratzargailuak jotzen duenean? | 7. Goizeko 5etan jaikitzen naiz, berehala. | 7. Erraz jaikitzen naiz. |
| 8. Egin duzun azken ametsa? | 8. Ez naiz gogoratzen, ondo egiten dut lo. | 8. Athletic-eko jokalaria nintzela. |

# TXIKI inkesta

## Gustatzen zaizkizu San Ferminetako entzierroak?



**Jon Arakistain**
10 urte

Bai, zezenak izugarri gustatzen zaizkit eta adrenalina askatzea ere bai. Lagunekin aterako nintzateke entzierroetara.



**Aner Astigarraga**
10 urte

Bai, oso giro ona egoten da. Zezen txikiekin egingo balitz aterako nintzateke korrika egitera lagunekin.



**Carla Dorta**
10 urte

Bai, oso ondo pasatzen dut entzierroak ikusten. Zezen aurrera ere aterako nintzateke, baina beldurra sentituko nuke.



**Maite Viñé**
9 urte

Bai, telebistaz ikusten dut entzierroa egunero, baina ni ez nintzateke aterako, beldur handia ematen dit.

# LEHIAKETA

## Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: ..............................................

..............................................................

Izen abizenak: ..........................................

Telefonoa: ...............................................

**SARIA**

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Unai Astiazaran**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARRENera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com

Uztailaren 1ean hasi zen udako beherapenen denboraldia.

# Baduzu ohiturarik beherapenetan erosketak egiteko?

**AGURTZANE URRIOLABEITIA**
Kazetaria 28 urte



“Ez. Beharra daukadanean egiten ditut erosketak. Erakusleihoan gustuko dudan zerbait ikusten badut ez naiz beherapenetara arte itxoiten duten horietakoa”.

**ANA SASTRE**
Komertziala
31 urte



“Noizean behin bai. Ez naiz beherapenen zain egoten, baina parean gustuko zerbait tokatuz gero eta merkeago badago aprobetxatzen dut aukera”.

**LOREA UNZUETA**
Ikaslea
47 urte



“Bai. Oraingo beherapenetan jadanik erosi dut zerbait. Beharra nuen eta merkealdiak aprobetxatu ditut. Hala ere, ez naiz beherapenen zale itsua”.

**FERNANDO LARRAÑAGA**
Fresadorea 55 urte



“Behar zehatzen bat izanez gero aprobetxatzen ditut; udako oinetakoak erosteko, esaterako, aproposak dira oraingo merkealdiak. Aurten ere baliteke zerbait erostea”.

# [ BAI ala EZ? ]

## Egiten al duzu dieta berezirik uda denboraldirako?

**BAI %68**

“Bai. Egia esanda urte guztian zaintzen naiz, baina uda iristear dagoenean, gehiago. Bikinia ipintzeko soberan daukadan guztia kenzea gustatzen zait.”

**EZ %32**

“Ez. Uda denboraldirako zehazki ez, urte osoa pasatzen dut nik dieta egin nahian baina hainbeste disfrutatzen dut jaten!!! Noiz jarriko ote gara neska ederrak modan?”

Datorren asterako... Asteburuan hasiko dira San Fermin jaiak.

**Ba al daukazu San Ferminetara joateko asmorik?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# 20 07



# idazmakinak

## gazteentzako ipuin lehiaketa



IDAZMAKINAK 2007 gehigarri berezi honetan, izen bera duen lehiaketan irabazi duten lanak irakurtzeko aukera izango duzue. Eta lanekin batera, lan hauek idatzi dituzten hamabi eta hamazortzi urte bitarteko gazteak ere ezagutuko ditugu. Orain arte gehigarri honetan ipuinak eta bertsoak izan baditugu ere, aurten ez dugu bertsorik izango. Ipuinen munduan galduko gara. Jasonek eta Jonek esan digutenez, Batxilergoan (DBHO) oso maila ona egon da. Oso zaila izan dute irabazlea aukeratzea. DBH 3-4. mailetan, berriz, maila baxua egon da eta sariak hutsik geratu dira. Azkenik, DBHko 1-2 mailetan lan original bati eman diote saria. Beraz, eta nahi baduzue, hartu tarte bat eta idazle gaztetxo hauen lanak irakurtzera gonbidatu nahi zaituztegu. Ea gustatzen zaizkizuen.

### IRABAZLEAK

**IPUINAK**

**DBH 1 eta 2: "Ez dut gehiago ikasi nahi" lanarekin:**
1. saria: Lore Mendizabal
2. saria: Ane Astiazaran eta Maialen Solabarrieta

**DBH 3 eta 4: "Nire ama berriz ezkonduko da" lanarekin:**
1. saria: hutsik geratu da
2. saria: hutsik geratu da

**BATXILERGOA: "Nire lagun onena galdu dut" lanarekin:**
1. saria: Maite Quintanilla eta Iosune Egaña
2. saria: Danele Sarriugarte
3. saria: Alana Berraondo

*Epaimahaia: Jasone Osoro eta Jon Eugi.*

# LORE
# MENDIZABAL



- 1994. urteko urtarrilaren 8an munduratu zen.

- DBHko 1. maila ikasi du.

- Jasone Osororen "Jara" liburua gustuko du.

- Lorek "oso pozik" jaso du lehiaketa irabazi izanaren berria. Ez zaio asko kostatu ipuina idaztea: "Lehenengo istorioa pentsatu nuan. Gero, idazten hasi nintzan eta bastante erraz atera zitzaidan".

- "Ez dut gehiago ikasi nahi" leloari, ikuspuntu original batetik heldu dio eta berak asmatutako pertsonaiak ez dio oinarrizko hezkuntza ikasteari utziko, euskara ikasteari baizik. "Denek horren inguruan egingo zutela pentsatu nuan. Ni ideia berri baten bila hasi nintzan eta hori okurrittu zitzaidan". Izan ere, istorioko protagonista kanpoko herrialde batetik Euskal Herrira etorriko da: "Kalean erdara egitten dela eta ez dakala ikasteko beharra ikusiko du, hasieran. Baina, gero, euskaldunen lekuan jartzen da eta euskara ikasten hasten da. Gainera, baserritar batzuek lagundu egingo diote". Ipuina idazteko Elgoibarko egoera aintzat hartu ote duen galdetuta, baietz erantzun digu: "Piska bat, bai. Baina Elgoibarkua bakarrik ez, orokorrian Euskal Herriko herri guztixetako egoeria hartu dot kontutan", azaldu du.

- Irakurtzea "asko" ez zaiola gustatzen aitortu digu. Baina esku artean hartzen duen liburuak badu zerikusia horretan. "Segun zein liburu; batzuk gustatzen zaizkit baina beste batzuk ez. Engantxatu ein bihar naute, bestela ezin dot irakurtzen segi. Ikastolan kurtsuan zihar liburu motzak irakurri dittugu, baina neri eskolaz kanpo luziauak irakurtzia gustatzen zait".

## "Ez dut gehiago ikasi nahi"

Apa lagunok! Nire izena Eduardo Jose Pazmiño da. Ekuadorren jaio arren guztiz euskalduna nauzue. Azal beltzaraneko gizon txiki bat naiz. Begi beltz-beltzak ditut eta ezpain potolo gorrixkak. Ekuadorko kosta aldeko herri txiki batean jaio nintzen, Tumbes herrian hain zuzen ere, familia langile eta txiro batean, arrantza munduarekin lotutakoa. Nire ama arrainak harrapatzeko sareak egiten ibiltzen zen portuan, jo eta ke, eta nire aitak ,berriz, gauak ematen zituen itsasontzi txiki batean arrantzan. Baina ni ez nintzen familia arrantzale horretan bakarrik jaio; zortzi anai arrebetatik gazteena naiz. Betidanik izan dut Europara etortzeko gogoa, alde batetik diru pixka bat irabazteko eta, bestetik nire Ekuadorko familia laguntzeko. Bestalde Europako kultura ezagutzeko gogo bizia nuen. Idazlanaren hasieran guztiz euskalduna naizela esan dizuet baina ez dizuet kontatu beste hainbat gauza. Orain, datorren zati honetan kontatuko dizuet Ekuadortik etorri eta orain arte euskararekin izan dudan h a r r e m a n a .
O Badira 30 urte etorri nintzela Euskal Herrira, nahiz eta ni Espainiara etortzeko asmoarekin abiatu, herrialde polit honetara iritsi nintzen. NI hona heldu nintzenean Espainiara etorri nintzela pentsatzen nuen baina hemen konturatu naiz Euskal Herrian nagoela.

Dakizuen bezala, familia laguntzeko iritsi nintzen Euskal Herrira eta, normala denez, segituan, lan baten bila hasi nintzen. Lana eskuratzea oso zaila izan zen; Ekuadorkoa nintzenez jendeari mesfidantza sortzen nion eta ez zidaten lanik ematen. Beti berdina entzuten zuen "Ai! barkatu lehenago etorri izan bazina emango nizuke baina zure aurrekoari eman diot " eta ni, noski, isil isilik geratu eta irribarre txiki batez eta "adios" goxo batekin agurtu behar izaten nuen. Agur esaten ez nekielako.

Bi hilabete pasa nituen lanik aurkitu gabe eta pagatu ezin nituen ostatu txiki eta kutre batzuetan lotan. Beraz, dirua irabazi beharrean galtzen ari nintzen. Halako batean, xentimo bat ere ez nuela geratu nintzen.

Orduan bai ez zegoela ez ostatu kutrerik eta ez ezer. Gaua iritsi zen eta baserri zahar bateko kortan sartu nintzen lo egitera. Banekien gaizki egina zegoela baina bestela, zer egingo nuen? Kalean lo egin beharko ote nuen? Ez, polizia etorriko zen eta auskalo zer gertatuko zen nirekin. Agian Ekuadorrera bueltan bidaliko ninduten.

Goiza heldu zen eta demaseko susto batekin esnatu nintzen. Gizon bat garrasika ari zitzaidan, hizkuntza arraro batez; kanpotarra izango zela pentsatu nuen. Ez niola ezer ulertzen ikusi zuenean gaztelaniaz mintzatzen hasi zitzaidan, baina oso gaizki. Poliki-poliki, dena esplikatu nion. Oso haserre jarri zen eta eskuan zuen tramankuluarekin jo behar ninduela iruditu zitzaidanean "si quieres yo te doy trabajo" esan zidan. Harriturik



geratu nintzen. Bera ez zela kanpotarra esplikatu zidan eta hitz egiten ari zen hizkuntza hori Euskara zela eta Euskal Herriko bertako hizkuntza zela.

Baina Espainiar estatuak traba asko jartzen ziela euskarak aurrera egin zezan eta beste milioika gauza interesgarri kontatu zizkidan. Bera Joxe Migel Garitagoitia zela eta hor ondoan zegoen etxe hartan bizi zela bere ama, emazte eta bi seme-alabekin esan zidan. Niretzat, hasieran, familia horrek zituen ohiturak oso arraroak egin zitzaizkidan baina beraien laguntzaz segituan ohitu nintzen baserriko bizitzari. Hainbat lan egiten nituen: behiak jaitsi, ganaduari jaten eman, korta garbitu... Nahiz eta lan pilo hori egin, ni oso pozik nengoen; alde batetik, diru mordoxka irabazten nuelako eta, bestetik, oso ondo tratatzen nindutelako.

Etxe horretan pasa nituen zortzi hilabeteetan nahiko ondo ikasi nuen euskara baina, gero, erokeri galanta egin nuen. Fabrika baten lan egiteko aukera eman zidaten eta poz pozik hartu nuen. Etxekoek esan zidaten lantegi batean lana egitea oso gogorra zela baina nik, kasurik egin gabe, lantegira joateko erabakia hartu nuen. Etxe hartatik atera aurretik azken gauza esan zidaten: “hitz emaguzu Eduardo, beti euskaraz hitz egingo duzula eta herrira jaisten zarenean euskaltegira apuntatuko zarela.” Orduan, nik, lasai erantzun nien baietz, hemendik aurrera euskara nire hizkuntza izango zela eta beti jardungo nintzela euskaraz.

Herrira jaitsi ondoren euskaltegian izena eman nuen, baserrikoei hitz eman nien bezala. Ondoren lantegi berrira urreratu nintzen lan berriari ekiteko gogoz. Laster damutuko nintzen baserria laga eta lan berri hau hartzeagatik! Ez dakizue zer entzun nuen ateak ireki bezain pronto: ERDARA, erdara entzun nuen. Baina nik pentsatu nuen lankideak erdaraz egiten zutelako nik ez nuela zertan erdaraz mintzatu eta egingo nituela beste lagun euskaldun batzuk eta beraiekin euskaraz hitz egingo nuela. Beraz, bizimodu berri hontara ohitu beharko nintzen. Baina hori ez da eduki nuen arazo bakarra. Bazen garaia nik kalea hobeto ezagutzeko eta pasiara bat ematera joan nintzen herriko plazara lana bukatu ondoren.

Nekatu egin nintzen eta plazako banku batean jarri nintzen bertako giroa aztertuz. Nahiz eta euskara zertxobait entzun gaztelera zela nagusi konturatu nintzen.

Denbora pasatu zen eta nik ere egin nituen herri hartan lagun txiki batzuk. Haiek euskaraz hitz egiten bazekiten baina erdara erabiltzen zuten eta nik, ondorioz, gero eta euskara gutxiago erabiltzen nuen. Nahiz eta herrian erdara nagusi izan, bazegoen gure auzoan talde bat euskara laguntzeko zein Euskal Herriaren independentziaren aldeko ekitaldiak eta beste hainbat gauza antolatzen zituena. Hasieran, nik horietako talde baten hartu nuen parte eta antolatzen zituzten ekitaldi guztietara joaten nintzen. Baina lantegian gero eta lan gehiago neukan; beraz, oso gutxi ateratzen nintzen nire lagunekin kalera eta lantegian erdaraz mintzatu behar izaten nuen. Orduan, bizitza honetan egin dudan akatsik handiena egin nuen: euskaltegira joateari utzi nion eta EZ NUELA EUSKARA GEHIAGO IKASIKO ESAN NUEN!!!!!! Ez zuela ezertarako balio, herri honetan oso gutxi zirela euskararen alde zeudenak eta, gainera, oraingo gazteria etorkizunean helduak izango zirenak erdaraz hitz egiten zuten gehienek. Zertarako mintzatu euskaraz, erdaraz hitz egiten badu  jende guztiak!

Urte asko pasatu nituen erdaraz jo eta ke eta 50 urte egin nituenean fabrikatik bota ninduten, arrazoirik eman gabe. Nik uste dut kanpotarra eta nahiko zaharra nintzelako kaleratu nindutela. Ni kaleratu eta hurrengo egunean betako bi mutil gazte ikusi nituen lantegira sartzen.

Ezer gabe geratu nintzen, arratsalde osoa etxean ematen nuen edo lan bila, baina ezer ez. Zeinek nahiko zuen 50 urteko langile kanpotar bat? Bat-batean, munduko albisterik onena jaso nuen telefonoz. Baserrikoak ziren eta lanik gabe nenbilela jakin zutenean  beraiek laguntza txiki bat behar zutela baserrian esan zidaten telefonoz. Baina hori esan ondoren nik entzutean nahi ez nuen galdera egin zidaten: “euskaraz mintzatu zara orain arte kalean, ez?” Nik, triste, egia erantzun nien. Barka-tzeko baina ezetz, han jende guztiak erdaraz hitz egiten zuela eta beharrik gabe sentitu nintzela. Baserrira  iritsi nintzenean makaleko hitzaldiak entzun behar izan nituen: euskara gora eta euskara behera. Baina, zorionez, berriro sartu zitzaidan buruan euskararen alde egitea eta momentu horretatik haurrera beti euskaraz hitz egin izan dut.

*“Bueno gazteok, espero dut idazlan honekin garbi utzi dudala zuek zaretela herri honen geroa eta zuek aldatu behar duzuela euskararen eta Euskal Herriaren egoera. Beti hitz egin euskaraz eta ez hartu nik hartu nuen erabaki txar horietakorik, bestela damutuko zarete. Izan euskaldun eta bizi euskaraz”.*

# MAITE KINTANILLA



• 1989ko apirilaren 15ean jaio zen Soraluzen.

• Batxilergoko 2. maila ikasi du Elgoibarren.

• BESTE SARIAK: Soraluzeko ipuin lehiaketa irabazi zuen 1999an, 2002an eta 2005ean, eta baita bere herriko amodiozko ipuinen lehiaketa ere 2004an. Mendaroko ipuin lehiaketan birritan saritu dute eta iaz bera izan zen "Idazmakinak" lehiaketa honetako garailea.

• Mark Haddon-en "El curioso incidente del perro a medianoche" liburua irakurri berri du.

• Maitek bigarren urtez jarraian irabazi du lehiaketa hau, nahiz eta oraingoan saria partekatu egin behar izan duen Iosune Egañarekin. Erabakia, hala ere, "oso ondo" hartu du, Iosune bere kuadrilako laguna duelako. "Bere ipuina irakurri naban eta gustau jatan" onartu du.

• "Nire lagunik onena galdu dut" leloari helduta, bere narrazioko protagonistek lagun ezberdinak galduko dituzte. Galera horien berri gutun bidez ezagutuko du irakurleak. Izan ere, gutuna, Maiteren ustez, "zuzenaua da, zuzenian doia hatzailiangana eta horregatik normala da hori erabiltzia. Gelan beste batzuen ipuinak irakurri genittuan eta askok idatzi zittuzten eskutitzak".

• Hizkuntza errejistro ezberdinak erabili ditu. "Gutun bat zuka idatzitta dao, beste bat hika batuan eta azkena plaentziako eran". Plaentziako hitanoa menderatzen duela argi erakutsi du. "Igual errezau irten jata hori batuerazko hika baino. Amamak-eta erabiltzen dabe eta haiei entzunda dakitt".

• Iaztik hona poesia gehiago irakurri du. "Ez dakitt gustuak aldatu jatazen baina poesia be irakurtzen hasi naiz. Beti gustau izan jata baina lehen prosa gehixao irakurtzen naban eta orain bixak irakurtzen dittut" esan digu.

## "Hutsik"

Hutsik. Horrela sentitzen zara. Zeinen sentipen ankerra, ezta? Zulo beltzeko hutsunea barrenean eta zu berriz hutsune are beltzago baten erdian.

Hutsik eta, noski, bakarrik.

Eta diozu, gorroto duzula guztia! Gorroto duzula ingurua! Gorroto zeure burua. Eta orduan albotik norbait pasatu eta irribarrez ikusten duzu. Hura ere bakarrik doa, baina ez dago ez hutsik, ez bakarrik. Edo... agian bai? Momentu horretan, burutatzen zaizu bakardadea ez dela beti txarra. Bakardadea norbere buruarekin izaten dugun tertulia dela. Hala ere, hitz aspertu hori begietara so egiten al da? Ohartzen zara, batzuetan baietz, hala dela; ez, ordea, bestetan. Begiak lurrera zuzendu eta esaten diozu zure barren horri: "Ondo nago, primeran, zoriontsu naiz..." edo "Ez dut bizi nahi, hau bizitza ankerra!". Eta, noski, arrazoiak aurkitzen dituzu sortu berri duzun hori sinesteko.

Horrelakoxea zara! Baina lasai! Ez zara bakarra, eta beraz... ez zaude bakarrik! Hara, orain gure tristezi eta buruhausteek batzen gaituzte. Begira bestela taldeko terapia horiei, bakartasunak elkartzen ditu, arazo bortitzaren aurreko bakartasunak lotu.

Egun gogorra izan duzu gaurkoa, baita atzokoa eta herenegunekoa ere. Eta pentsatzen hasia zara, hemendik aurrerako guztiak ez direla asko ezberdinduko. Baina mesedez! Horrela ez goaz inora! Altxa burua! Begiratu aurrera!

....................Uf! Zer esan dut, ordea! Orain modan dagoena "Carpe diem" dela ahaztu dut ia. A ze eskapada! Barkatu! Hala ere, ez ahaztu orainean egoteak aitzinera egiteko zerbait baduela, izan ere pausoz pauso egiten dugu gaur eguneko bidaia, beti ere aurrerantz edo joaz.

Erreuma madarikatu horrek ez dizu ezer barkatzen! Ene! Hori lana aulkitik jaiki eta bi urrats burutzeko. Badakizu, urteak aurrera doaz (horiek bai doazela aurrera!) eta antxintxika egiteko garaiak joan zaizkizu. Gaztelerazko "tiempo al tiempo" hori etorri zait gogora. Herenegun pinguinoak legez, atzo tigreen parera eta gaur, berriz, satorra dirudizu! Hobe biharkoaren berri ez izatea.

Atearen zarata entzun duzula iruditu zaizu. Zu ez zara ez ikaratu, makina bat ezuste eta aterraldi pasatutakoa zara eta!



Hara! Itziar da!

- Gabon! Zelan jun da ba gaurko eguna?
- Jun don ta, gaitzerdi!
- Ene! Beti berdin e! Lorentzo ekinda ba bere onenak emoten eta urten bihakozu pasiora edo.
- Bai arrazoi don, baina erreuma madarikatu hau!
- Beti kejaka! Aaaaaaaai.- Hasperen egin du- Bixar nerekin urtengozu trenbidera eta ligau eingou! Gustatzen jatzu plana?
- Ligau nere edadian?

Barrez atera da zure semearen laztana. Emakume bikaina da, bai! Beti umoretsu. Hori dirudi, behintzat, zuk badakizun arren zeinen une latzak igaro dituen zera hori zela eta.

Hara! Ligatu esan dizu. Ene! Haiek bai, haiek, garaiak!

Nostalgiko jarri zara, eta gomuten gurpilean bira egiteari ekin diozu. Orduan oroitu zara gerritik helduta dantzan egiten zenuen abesti hartaz.

*"Si tú me dices ven...*
*Lo dejo todo.*
*Si tú me dices ven,*
*Será todo para ti...*
*Mis momentos más ocultos,*
*también te los daré,..... "*

Azkenengoz noiz dantza egin zenuen gogoan duzu. Eta zoritxarrez, edo ez (hori zuk erabaki), bakarrik izan zen. Beno, bakar-bakarrik ere ez. BERE oroitzapenaz egin baitzenuen, Oxkiren begiradapean.

Ilundu du aspaldi eta begiak nekatzen hasi zaizkizu. Gaur ez duzu irakurriko, zuzenean oheratuko zara. Bihar larunbata izanik Eneko eta Aintzane bisitatu beharra baitaukazu eta beraz, goiz utziko diozu errealitate utopikoan bidaiatzeari.

Primeran egin duzu lo, aspaldiko partez. Eta bat-batean zure ama zenak esaten zuen bezalaxe "agarraua" dantzatzeko sekulako gogoa sartu zaizu. Hasi zara ahaleginetan. Ene! Bizkor hasi zara, konturatu orduko erreuma zikin horrek gelditu baitzaitu, seko!

Dedio! Hori da hori mina! Ene!

Baina aizu! Zer da hori zuretzat, bizitzan zehar hartutako makila-salda guztiekin alderatuz? Deus ez!

Eta irribarre egin duzu, zeuk ere ez dakizu ondo zergatik, baina iluntasuneko argi izpia bota duzu oraingoan.

Konturatu zarenerako pausoz pauso eginiko bidezidorrak zure biloben etxe aurrera eraman zaitu. Bertara sartu eta han aurkitu dituzu biak logura aurpegiaz tripa-zorria asetzen.

Behatzaile lanetan aritu zara, izan ere beraien gaztetasunak begirada bat baino gehiago lapurtzen ditu.

Aintzanek muxu goxo bat eman dizu masailean eta Eneko berriz zure altzoan eseri da. Ederra berba-jarioa mutil honena! Kazetari lanak ederki beteko lituzke!

Zuk adi-adi entzuten dituzu bere esanak. Esan dizu egoteko hor mugitu gabe, gauza bat erakutsi behar dizula eta.

Han etorri da "Matematika" jartzen duen liburu gorri batekin. Zabaldu eta zera bota dizu:

- Lagundukostazu eitten?

Zu barre-algaraka hasi zara eta bitartean liburua zabaldu duzu. Hara, "sumar y restar" dira. Berak batu eta kendu berbekin antzekotasunen bat daukan zerbait erran dizu. Han zabiltzate nola egin asmatzen sutsuki.

Ai umeak! Enekok ere alde egin du alboko gelara, tramankulu berbazaleak marrazki bizidunen hasiera iragarri baitu. Sukaldean gelditu zara zu, matematikako liburuari begira eta orriak banan-banan pasatuz, urteak igaro izan zaizkizun legez: poliki,baina azkar.

Ia konturatu ere ez zara egin orri tolestuaz. Eta aurrera jo duzunean, berriz ere atzera egin duzu senak bultzaturik. Matematika liburuan ezkutatutako gutun batekin aurkitu zara parez pare eta besteen gauzetan muturra sartzen abila zarenez (barkatu, baina hala da), irakurtzeari ekin diozu letra okertu antzeko handia ulertuz.

*Nire etxean, 2007ko apirilaren 28an*

*Kaixo:*

*Zer moduz? Ni, bueno, ondo ez. Orain ez diat barre egiteko gogorik edukitzen. Ez zekiat, agian hik eragiten hidan barrea eta orain ez zeukeat gogorik.*

*Nolakoa duk hori? Polita? Ziur handi-handia dukela! Aitittak hori esaten zidak beti. "Eneko, laztana, ez beldurrik euki... han goixan dana don edarra!"*

*Han goian, hemen behean? Ez diat ezer ulertzen... Baina nik ere goian egon nahi diat! Ze badakik? Handia nauk, ni mutil handia nauk, eta horregatik goian egon ahal nauk.*

*Jo! Ez zekiat zer gertatzen zaidan. Badiat zerbait hemen, eztarrian. Behin txikia ninduala (ze orain mutil handia nauk!) hondartzan olatu azpian eduki nian gauza bera zeukeat lepoan. Eta orain ez nagok uretan...*

*Ama hurbildu zaidak lehen eta eskuaz masaila igurtzi. Eta esan zidak negarrik ez egiteko. Nik esan zioat: " ez nago negarrez, bakarrik ura erortzen zait begietatik ". Baina ez nagok negarrez e! Mutil handiek ez ditek negarrik egiten, nire arreba ere handia duk eta ez dik negarrik egiten.*

*Orain ez zeukeat ezer besarkatzeko, inor elkar jolasteko... Eta orain, uste diat, ez zidakela inork ulertzen... Lehen hik bai. Nik egunean egindakoa kontatzen nian: eskulanak egin nitiala, pote-potera jolastu niala, Ekaitzekin borrokan egin eta triste nengoala... Eta orain, nori kontatu behar zioat Miren nirekin haserre zagokela?*

*Eske... hik ulertzen ninduan. Begiratu eta nire eskua miazkatzen hidan eta horrela nik banekian ados hengoala nirekin. Edo bestela, sukaldeko horma margotzen ari ninduala, amatxo baldin bazetorren hik zaunka egiten huen eta nik korrika alde egin. Jo! Zelako ondo pasatzen genian!*

*A! Ez zakiat ikusten didaken, baina hik ez esan aitatxo eta amatxori matematikako etxekolanak gaur ez ditiatela amaituko e! Eske hiri idazteari ekin zioat eta...*

*Oxki, badakik? Beltz ere triste zegok. Goizak, arratsaldeak eta gauak ematen ditik zelaian etzanda, geldi-geldi! Eske...jo! Zergatik joan haiz?*

*Aintzanek esan zidak beste txakurtxo bat oparituko zidakela. Baina berak ez dik ulertzen; nire laguna hi hintzen eta beste animalia hori ez haiz hi izango.*

*Joe!*

*Oxki-koxki, azken gauzatxo bat kontatuko diat, bale? Baina ez esan inori e! Hor goiko hire lagun berriei ere ez. Ba, begira... Bi malko (bi bakarrik) erori zaizkidak begietatik, eta orain berdin zaidak mutil handia banauk ere. Horrela korapilo hau txikitzen dukela ematen dik. Baina hi ixilik e!*

*Bueno, Aritz etorri duk bere aitatxokin, eta amatxok esan zidak joateko, beraz... agur!*

*A! Itxoin, hitz eman ez duala inoiz nik ematen nian gailetaren usaina ahaztuko, bale? Horrela, nik jaten ditiaten bakoitzean hitaz gogoratuko nauk eta hi nitaz!*

*Zintzoa izan e! Ni ere hala izango nauk!*

*Muxu bat eta agur.*

*Eneko*

Tanta lotsati bat antzeman duzu begi izkinatik ihes egin nahian. Karta tolestu eta zegoen tokian utzi duzu. Aintzane begira daukazu mahaiaren beste aldetik, zuk irribarrez erantzun diozu. Berak zutitu eta munduko besarkadarik zoragarriena eskaini dizu. Besoak zabal-zabalik.

Eneko, bueltatzean, mutil handia ikusi duzu, eta zure bihotzaren izkinatxo baten zerbait apurtzen sentitu. Errealitatearen gordintasuna bizi behar izateak, mina eta ikara bezalako hitzak gogoratu dizkizu.

Hala ere, ez izan beldurrik, Eneko benetan baita mutil handia. Handi-handia.

Han agertu da zure alaba presaka eta korrika lanetik. Beti bezain urduri eta aktiba. Ai! Ez da sekula aldatuko!

Aurreko astean utzi zenion liburua bueltatu dizu. Zu ez zara etxera heldu artean konturatu bertan utzi duela gauero erabili duen "aurkibidea". Bitxia iruditu zaizu gauza hau, "modernoa". Eta bertan zure alaba Aneren hizkia ezagutu duzu.

“Baldin eta ondorioak pairatzeko gauza bagara, norberaren erantzukizuna onartu behar baldin badugu, askeak gara ezinbestean (Fito Rodriguez, “kassandra leihoan”)”

Halako beharrizan bat sentitu duzu barrenean eta sutondoaren epelaz babesturik idazteari ekin diozu, eskua trakets mugitzea oztopo izan gabe.

*Munduan azpikaldian, gaurko egunez*

*Ai nere laztana:*

*Ez eidan galdetu zegaittik itten jonat, biar bat somau jonat eta ortan nabil, ori asetu naixan.*

*Gure alaba dan Anena akordau non, izan be, bere erantzukizunak ein jone preso. Ondiok goguan jakanat ezkontzera zoian egun aura. Konpromisua besterik ez zonan izan berandako, askatasunetik aldendu eban zeoze. Neuretzat berriz, demasekua izan zonan hirekin bat eittia. Ni neu izateko okasiñua izan zonan eta onekin batera txorixak moduan askia izateko. Hire albuan beti be.*

*Bein eskribitzen asitta, dana esango jonat. Hire gaztetako oinetako gorrixak, ondio armaixuan jaukazenat. Badakin, ezin jonat ezer bota, pasaua azteko biyurrez edo. Joandakuak alde eingo daban ikaraz. Ortxe dare, astero astero lustria artzen dabezelarik.*

*Hire begi azulak! Arek bai Arek begi edarrak! Eta neuri begira jartzian! Ene! “Que haga dardara la tierra”! Ori zonan ori ikaria, anka puntetan asi eta kolkorainokua.*

*Amen najaon, sutonduan epeletan, hire berotasuna sentidu naixan. Alde ein eban nere albotik, orra gora juteko. Eta gure Eneko lagunik bare geratu don bezela Oxki akabatzian, neu be ala najaon joandaneko aspaldixan. Hi intzan da bixotzeko maittia, amistaderik zoragarrixena. Amistadia esaten jonat, izan be, enamorauta egotia baño gauza edarraua dalakuan najaon eta.*

*Badakin oin ze eingo neban gustora? Hiri gerrittik eldu eta “como cuando eramos nobios” pasiuan ein. Auzo danan inbidixia giñuztan, Joxepi! Ene!*

*Despeditzen asteko ordua dala usten jonat. Badakin berbak asko eukitta be, denporian esklabua biurtu non neu be. Urrengo baten, erlojua sutara botako jonat eta orduan barriro be lapitza eta papela artuaz hiri berbetan asiko non, tirrika tarraka bada be.*

*Alkarren barri laste izango dogulakuan, laztan edar edar bat emendik orra gora.*

*HIRE TXAPELDUN PRINTZIPIA*

Gaurkoz nahikoa izan duzu, segi ohera, bihar ere egunak argituko du eta iraganak oraina lantzen eta jorratzen lagunduko dizu. Gabon!

# IOSUNE EGAÑA



• 1989ko otsailaren 11n jaiotakoa da Soraluzen.

• Batxilergoko 2. maila ikasi du Elgoibarren.

• BESTE SARIAK: Mendaroko ipuin lehiaketan lehenengo saria lortu zuen iaz, eta bigarrena duela bi urte. Bigarrena izan zen, baita ere, iazko "Idazmakinak" lehiaketa honetan.

• Carlos Fonsecaren "Trece rosas rojas" liburua asko gustatu zaio.

• Iosuneri ere ez zaio gaizki iruditu saria bere lagun Maiterekin partekatu beharra. "Halako lagun batekin, ttikittatik ezautzen doten pertsona batekin sarixa banatziak ez dozta batere inporta" aitortu du. Hori bai, literatura ezberdina egiten dutela deritzo: "Nere ipuinak erakargarrixak izan leikez kontatzen dotenagatik, baina Maiterenak aldiz, gertakarixak kontatzen dittuan moduagatik. Neri pila bat gustatzen jata bere idazkera".

• 1936ko gerra zibilean girotuta dago istorioa eta ez da harritzekoa. Izan ere, neska plaentziar honek dioenez, "gerra zibileko mundu hori familixan oso barneratuta dao. Bi aitonak gudarixak izan dittut eta aitxakin historiako pasarte horri buruzko elkarrizketak izaten dittut. Beti gustau izan jata hortaz jakitia eta idaztia".

• Protagonistak kartzelakidea galduko du: "Saturraranen izan zan kartzelaren berri jakin nabanian, gaiak asko erakarri ninduan. Ahalik eta gehixen irakurri naban horri buruz eta esan naban \`idaztera noia´. Gainera, gogua nakan ipuin bat kartzelan kokatzeko. Kartzelan zaudenian ondokua laguna egitten dozu askotan eta egoera berdinian dauanez, bera bihurtzen da zure lagunik onena. Orduan, bera galtziak ze ekarri leiken azaltzen da ipuinian".

• Iosune bere senideen bizitzetan oinarritzen da ipuinak idazteko. "Askotan biharra dakatelako idazten dot. Nere familixako pertsona bat hartu eta haren bizitza kontatzen dot. Azken hau ezberdina izan da, baina sarittu dittuzten nere beste hiru ipuinetan horixe egin dot, haietaz idatzi biharra nakalako, zehozer zor notzelako".

## "Urratsen bidea"

Urrats bat...
Bi urrats...
Hiru urrats...

Urrats txikiek iragana urruntzen badute ere, neuk ezin izango dut garai hartako une latz eta mingarririk ahaztu... eta nahi ere ez horrelako gertakaririk ahantzi.

Iragana ate joka ari zait. Hitz egin beharra dut, munduari adierazi... injustiziek ez dutelako tokirik nire barnean... Orain egin dezakedan gauza bakarra zure kondaira hau lau haizetara plazaratzea delako. Denek ezagutu dezaten zure bizitzaren etenaren zergatia.

Zuretzat, Marixabel:

1938ko urriaren 14an hasi zen guztia. Gure herrian Gerra zibil malapartatu haren ekintza bortitz eta jasangaitzak pairatzen ari ginen. Gatazka Espainiako lurraldean 1936. urtean piztu bazen ere, frankisten aurrerapen gera ezinaren indarrez, urtebete barru eskuindarren kontrolpean izan zen euskal lurralde guztia. Hego Euskal Herria aldi berean, bi zatitan banatuta zegoen. Alde batetik, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziak aurkitzen ziren, hauek errepublikaren jarraitzaile ondratuak ziren. Araba eta Nafarroa bestalde, matxinaturiko frankisten eta zibilen txakur izatera iritsi ziren.

Gipuzkoa eta Bizkaiko herri txiki guztietan gosetea areagotzen ari zen. Bata zela eta bestea zela... kostaldeko portuetara ez zen itsasontzirik heltzen, bi lurraldeak militarrez inguraturik zeuden... Hortakotz, pertsonei ez zitzaien inolako elikagairik iristen.

Ezintasunak, borroka giroa berpizten zuen. Diru eskasiak xixkalari konbertitzen baitzuen pertsona. Bada, horixe izan zen ni kartzelaratzeko argudio eztabaidagarria.

Arestian esan legez, 1938ko urriaren 14an gertaturiko jazoera hark ene bizitzan bete-beteko aldaketa zekarren. Goizeko 11ak aldera, etxeko ataritik irteten nenbilela, bat-batean 200 pezetako diru-papera aurkitu nuen nire begien aurrean. Garai hartan, 200 pezeta aski ziren ogi pare bat, dozena bat arrautza, libra eta erdi haragi eta ardo botila bi eskuratzeko. Beraz, ez zen batere opari txarra egun hartan jaungoikoak eskainitakoa.



Kalean behera nindoala, sabeleko orroak txorien kantuen moduan abesten ari zitzaizkidan. Baziren jada bi egun mokadutxo bat bera ere jateke neramatzanak. Hortaz, pozaren pozaz, duda-mudarik gabe, 200 pezeta haiek ziztu bizian agortzea pentsatu nuen. Parean nuen lehen dendan sartu eta merkantzia gutxi bazegoen ere, zegoen hartan erreparatu eta zertxobait erosteari ekin nion. Denboratxo pittin bat igaro ostean, dendatik irtenda nengoela jada, militar bikote bi ikusi nituen kale kantoian behera. Nik begiratu nahi ez banituen ere, haiek ni aise ikusi ninduten.

- ¡Alto señorita! ¡Deténgase!

Berbatzar haiek entzutean, laster batean arineketan hasteko nahia piztu zitzaidan. Poxpolo baten sugarra pizten den abiadura berberarekin, poltsak eskuetatik askatu eta kalean behera korrika hasi nintzen. Presaren presaz ez nuen astirik izan atzealdera begiratzeko. Gainean banituen ere, saltaka jarraitu nuen. Alferrikakoa izan zen guztia, segundo gutxi batzuk barru haien esku izango bainintzen.

Mende hartu ninduten, bortizki besoak soka batez heldu eta burua makurtuz euren Rand Rover-ean sarrarazi ninduten. Akabo guztia! Mekaguen zotz! Korrika ihes egin ez banu akaso, lasai-lasai nindoan bidetik jarraituko nuen pasioan. Korrika ihes egin ez banu akaso, honez gero erositako janaria dastatzen egongo nintzen. Korrika ihes egin ez banu akaso...

Ez nekien une hartantxe nongo bidean nengoen. Larri, estu, tentsio ikaragarrian... bidearen amaieran pentsatzen hasi eta sekulakoak eta bi zetozkidan burura: batailoiren batera lan egitera, neskame gisa haien esanak betetzera, apika norbaitekin ezkonaraziko ninduten... Ez dakit nire irudipena zen edo ez, nazka eta ikara aldi berean areagotzen ari zitzaizkidan, baina denbora dexente generamatzan Rand Rover zahar hartan sartuta. Bat-batean tramankulu berde hartako motorra geratu egin zen. Makurtuta banengoen ere, aurreko kristal nagusitik itsaso basati baten ortzi muga ikusi ahal izan nuen. Bai, kostaldean aurkitzen nintzen. Toki hura ezaguna nuen, Mutrikuko Saturraran hondartzan zegoen espetxean sartu nahi ninduten! Eraikina txikia bazen ere, begi-bistan erraldoia egin zitzaidan. Leiho bat bera ere ez zegoen burdinazko hesi bat ez zuenik. Urrats bakar bat eman orduko, hotza nire gorputzaren jabe egin zen. Negarrek, garrasiek, oihuek... ene hankak dar-dar batean jartzen zuten. Alde egitea ere ez zitzaidan bururatu. Sentipen bakarra nuen...ezintasuna.

Espetxe hartako bizimodua zitalenetan zitalena zen. Militarrek ez zuten kartzelan sartzeko baimenik. Hauen zeregin bakana emakumeak biltzea zen, ondoren Saturrarango emakumeen ziega hartan barneratuak izateko. Ni bezalako beste gatibuak sarritan umiliatuak izaten ziren. Makina bat aldiz ikusi genuen nola mojek giltzapetuei ilea mozten zieten, erabat burusoil gelditu arte. Geroxeago, Mutrikuko kaleetatik (elizkizun antzera) jende guztiak ikus ziezaien.

Presondegira zuzentzen zuen errepidea (sarrera bakarra) ondo babestuta zuten soldaduek. Kartzelaren bi alboetara muinoak aurkitzen baziren ere, honen aurrealdean Kantauri itsaso amaigabearen arrastoa zegoen. Soldaduek hortaz, bi mendixka haiek zaintzearekin nahikoa zuten. Haatik mojak ziren gure zaindari fidel eta azpisugeak. Emakume komunistok mezetara eta prozesioetara joatera behartzen gintuzten. Hori gutxi bazen ere, haurrak zituzten andreak euren umeak bataiatzera derrigortzen zituzten. Nahiz eta gogoz kontra izan, Katolikoak ginela ziurtatzen zuen agiri bat sinatu behar izan genuen. Gu ziztro, ahul, makal sentitzea zen haien desiorik ahaltsuena. Ez zuten keinurik ezta irribarre txikitxorik onartzen. Edonor halakorik egiten harrapatuz gero, zigor gelara bidaltzen zuten zuzen-zuzenean. Zigor gelak erreka baten zetzan. Mareak gora egin ahala, ura presoaren gerriraino iris zatekeen. Errekaren lohikeria egunero biziagotzen zihoan. Azkenean, higuingarria bilakatzen zen kutxa hartan giltzapeturik egotea. Zigorra beti ere, mojen haserre eta amorruaren araberako zen. Bazeuden astebete giltzapeturik irauten zuten neskatxak ere.

Espetxeko eraikinaz gain, Saturrarango hondartzan kapera eta erietxea aurkitzen ziren. Azken bi edifizio hauetan igarotzen genuen denbora luzeena. Bata zela, eta bestea zela, mojek egunean hogei errosario kantatzera derrigortzen gintuzten. Hasiera batean bat bera ere ez jakin arren, aise ikasi genituen. Orduak eta orduak pasatu behar izan genituen eta kaperako eserlekuetan.

Espetxeko baldintza txarrak zirela eta, tuberkulosia, tifusa eta bronkitisa bezalako gaixotasunek eguneko 24 orduak erietxeko eraikinean pasararaztea egiten ziguten.

Azaroko bigarren asteko astelehenean Maria Isabel Hoyos deituriko andre asturiar bat ekarri zuten soldaduek gurera. Bere aurpegi finak ez zuen ezer adierazten. Hain gardena zen haren begirada, zuen arimaren isla baitzen. Lehenengo momentutik nire zelda berean jarri zuten. Espainolei nien gorrotoa zela eta,

etsai egingo ginelakoan. Usteak erdi ustel! Baita zera ere, ene bizitzan izan dudan adiskiderik leialenarekin egin nuen topo. Bai Marixabel, zurekin. kartzelako une latz guztietan zu izan baitzara nire lagun, negar egiteko sorbalda, nire ama...

Ezagutu eta handik egun gutxira esana zidan jada, espetxeratu aurretik soldaduetako batek bortxatu egin zuela. Hortakotz, haurdun egoteko aukera dexente zituela. Izuaren izuz, haur txikia kenduko ziotela beldur zenez, sabela ezkutatzen saiatu zen. Lehen hiru hilabeteetan zendutako Kontxiren arropak janzten aritu zen. Kontxi andre lodikote samar bat zen. Bi aste zeramatzan zeruko erreinuan. Espetxean jasotako astindu bortitzek mundu lasaira gidatu zuten. Horra garai hartako beste injustizia zital bat!

Marixabelek sekulako sabel lodi eta zabala izan arren, mojak ez ziren ohartzen. 1.600 ginen giltzapeturik geunden emakumeak. Moja baldarrek ez zuten astirik ere ez haurdunaldi guztien tentu egoteko.

Bederatzi hilabeteak pasata zirela, Juantxo jaioa zen. Enkarna, Sagrario eta ni neuk Marixabeli lagundu genion erditzerako orduan. Sekula santan ikusi ez dudan odol pila harekin oroi-tzen naizen bakoitzean... Ai ene! Zorabiatzear nago berriz ere. Halaxe izan zen, Juantxo zugandik erabat at zegoela, kirioak dantzan hasi zitzaizkidan, eta ziplo lurrera erori nintzen.

Handik egun gutxira, sentipen arraro batek hunkitzen zintuela esan zenidan. Juantxo gero eta urrunago sentitzen zenuela... besoetan hartu eta hura indarrez eusteko desioak zenituela... Ama baten sentsazioek, bihozkadek... ez dutelako inoiz huts egiten. Sentipenak soilik sentimenen bidez igarriko balira... Zentzumenen bidez ez direlako sikiera apur bat ere ez sumatzen...

Sentimendu haiek kontatu eta ordu bete eskasera, bi moja zeure bila etorri ziren. Zer ondo zenekien hura izango zela Juantxo ikusiko zenuen azkeneko aldia. Burua makurtu gabe, inoiz baino irribarre politenarekin agur esan zenigun. Juantxo nire altzoan zela, zain nezan arrendu zenidan. ***"Te dejo a mi hijo, para que cuando crezca le expliques quién fue su madre. Ten valor y vive para contar lo ocurrido".***

Hitz horiekin joan zinen gure albotik, baina hitz horiekin ere gugandik gertu sentitzen zaitugu. Ez izan zalantzarik, Juantxok jada baitaki zure borrokaren xedea. Badaki nor izan zen Marixabel, nor izan zen ere bere sortzaile ausarta. Eskatu zenidana bete badut ere, hemen bihotzaren erdian huts nabarmen bat sentitzen dut oraindik.

Zelda koloretsuetan topo egingo dugulakoan...

Muxu mugagaitz bat hemendik.

***"Qué allá en el otro mundo, en vez de infierno encuentres gloria. Y una nube de tu memoria, recuerde a mí."***

Karmen Mendia
Eta Juan Hoyos


MANUFACTURED BY
The Oliver Typewriter Co.
No. 9
CHICAGO, U.S.A.
Keep Machine cleaned and oiled.



**Elkarrizketak:** Jon Eugi • **Maketazio-lanak:** Jaione Unanue

Antolatzaileak:

GAZ-T AISIALDI TALDEA
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:

Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza
kutxa

## JAIOTAKOAK



**Maddi Esnaola Idiakez**
[ Ekainak 5 ]
Zigor eta Erkuden



**Maitane Etxaniz Rodriguez**
[ Ekainak 10 ]
Aitor eta Elena



**Juan Gabilondo Iranzo**
[ Ekainak 12 ]
Jose Juan eta Felisa



**Danel Rodriguez Aranburu**
[ Ekainak 16 ]
Boni eta Onintza



**Ane Agirregomezkorta Garcia**
[ Ekainak 17 ]
Igor eta Nati



**Malen Galarraga Garcia**
[ Ekainak 19 ]
Pedro eta Laura



**Ane Calleja Camara**
[ Ekainak 24 ]
Ivan eta Miriam



**Gorane Fuentes Garcia**
[ Ekainak 24 ]
Eulogio eta Vanessa

**Marina Ferrandez Serantes**
[ Ekainak 4 ]
Ignacio eta Rosa

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.



**Nora Treviño Agirregomezkorta**
[ Ekainak 28 ]
Aitor eta Oihana



**Markel Garcia Melgosa**
[ Ekainak 18 ]
Raul eta Saray

## HILDAKOAK

**Rosario Ostolaza** • [ 89 urte ] • Ekainak 1
**Jose Julian Iparragirre** • [ 80 urte ] • Ekainak 14
**Luis Bilbao** • [ 78 urte ] • Ekainak 7
**Pakita Esnaola** • [ 90 urte ] • Ekainak 18
**Ikene Zabala** • [ 86 urte ] • Ekainak 19
**Antonio Espiga** • [ 76 urte ] • Ekainak 24

## EZKONTZAK

**Gorka Unceta** eta **Arrate Latatu** [ Ekainak 15 ]
**Xabier Elustondo** eta **Rakel Pujana** [ Ekainak 23 ]
**Imanol Santos** eta **Noemi Otegi** [ Ekainak 23 ]


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

elkarrizketa...

# Juanmi Abal



"LAIA" TALDEKO ABESLARI ETA GITARRA JOLEA DA JUANMI ABAL ELGOIBARTARRA. DUELA URTEBETE INGURU SORTU ZUTEN TALDEA LAU LAGUNEK ETA EPEALDI HORRETAN DENETARIK BIZI IZAN DUTE. JOAN ZEN ASTEAN ESATERAKO, BILBAO LIVE FESTIVAL JAIALDIAN ESKAINI ZUTEN KONTZERTUA, METALLICA EDO INCUBUS BEZALAKO TALDEEN AURRETIK. TXIKITATIK MIRESTU IZAN DITUEN TALDEEKIN JOTZEA IKARAGARRIA IZAN ZELA KONTATU DIGU. GAURKOAN 25 URTEKO ELGOIBARTAR GAZTE HAU GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA IZAN DUGU.

## "Metallicarekin kontzertua eskaini ondoren lasai hil naiteke"

**Zer sentitu zenuen Bilbao Live Festival jaialdian jotzen?**

Kristona izan zen. Espero genuena baino jende gehiago hurbildu zen gu ikustera, 1.500 lagun inguru bildu ziren eta sekulakoa izan zen, emozionantea. Metallica betidanik gustatu izan zait, mila aldiz amets egin dut beraiekin kontzertu bat eskaintzen nuela, eta sekulako esperientzia izan da. Nire ametsa bete da. Metallicarekin jo ondoren, lasai hil naiteke. Gainera jende guztia oso ondo portatu zen gurekin; horrekin gelditzen gara.

**Nola suertatu zitzaizuen Bilbao Live Festival jaialdian jotzeko aukera?**

Suerte handia izan dugu. Diskoa grabatzen ari ginela gure baterijoleari deitu zion antolatzaileetako batek Metallicarekin jotzeko proposamena egiten. Hasieran txantxa bat zela pentsatzen genuen, ezin genuen sinistu. Gure baterijolearen arrebaren bitartez lortu zuten gure telefonoa. Oraindik ez dakigu zergatik aukeratu gintuzten.

**Nola sortu zen Laia?**

Mungiako ikastetxe batean irakaslea naiz eta han jai interkultural bat antolatzen da kurtso amaieran. Bertako ikasle ohi batzuk pare bat abesti jo behar zituztela esan zidaten. Ni eta MUTED taldeko baxujolea ere, beraiekin jotzera animatu ginen. Oso ondo atera zen dena eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. Kontzertu bat hemen, beste bat han...

**Nondik dator Laia izena?**

Laia lurra lantzeko erabiltzen den erreminta bat da, nik baserrian txikitatik ezagutu dut. Euskal musika egiten dugunez, euskal izena jartzea nahi genuen eta "laia" hitza mordoa gustatzen zitzaigun, belarrira ondo ematen du, lasaitasuna eskaintzen du... horrekin geratu ginen. Gerora konturatu ginen laia hitzak esanahi pila bat dituela.

# BARREN

## Zein estilotako musika egiten duzue?

Egia esaten badizut, beti egiten didate galdera hau eta ez dut jakiten zer erantzun. Guri gustatzen zaizkigun taldeak Foo Fighters, Nirvana, Metallica, Incubus, Rice against the machine... Hardcore eta rock arteko estiloa. Eta euskaldunen artean Berri Txarrak. Askori min ematen die Berri Txarrak taldearen antza dutela entzuteak, guretzako ohore bat da Berri Txarrak bezalako talde batekin konparatzea. Kontzertu batzutan euren abestiren bat ere jotzen dugu.

## Diskoa grabatzeko zailtasunik izan al duzue?

Maketa bat geneukan eta disketxe guztietara joatea bururatu zitzaidan, ia norbait gure diskoa grabatzeko prest zegoen. Euskal Herriko disketxe guztiak pasatu nituen, banan-banan, denetan jo nuen atea. Azkenean Baga-Biga Produkzioak egindako eskaintzarekin gelditu ginen. Mutrikun grabatu genuen diskoa bost egunetan. Gustura gelditu gara emaitzarekin, eta orain hasiko gara promozioarekin. 1.000 kopia atera ditugu.

**"Musika dena da niretzat, ezin naiz musikarik gabe bizi"**

## "Izenbururik gabeko istorioak" jarri diozue izena. Zer aurkituko dugu?

12 abestitako diskoa da. Denetarik dago. Zuzenean bezala jo genuen. Pianoarekin batera abesten dut abesti batean, lehenengo aldia izan da eta gustura geratu naiz. Hori bai, nik ezin dut gure CDa entzun, nire ahotsa ez zait batere gustatzen. Zuzenekoan desberdina da, eta gitarra eskuartean dudanean izugarri lasaitzen naiz, konfiantza hartzen dut.



## Non eskuratu daiteke zuen diskoa?

Elgoibarren Iratxo tabernan dago salgai 10 eurotan. Sekulako ilusioa egin zidan Iratxora sartu eta gure taldearen kartela ikusteak, une horretan munduko gizonik zoriontsuena nintzen.

## Bizi al daiteke musikatik?

Ez, oso gutxi dira musikatik bizi diren pribilejiatuak. Elgoibarren kriston taldea geneukan, Arima Beltza, kriston kalitatea zeukaten, oso ondo jotzen zuten eta horiek laga egin badute, guk zer egingo dugu ba! Musika hobby bat da niretzat, baina profesionaltasun apur bat ezinbestekoa da, gogoa jarri behar da. Musikak gauza asko ematen ditu, baina kendu ere bai.

## Taldeko kideak herri desberdinetakoak zarete. Non biltzen zarete?

Ez da erraza. Astean behin elkartzen gara entseguak egiteko. Mutrikun daukagu lokala. Elgoibarko Udalak ez du batere laguntzen aspektu honetan, ez dute entsaiatzeko lokalik ematen. Eibarren musika talde gazteek euren lokalak dituzte Legarren, herri kanpoan eta nahi beste jotzen dute inor molestatu gabe. Elgoibarko talde mordoa desagertu egin dira entsaiatzeko lokalik ez zutelako. Mutrikun oso ondo portatu dira gurekin. Eskerrak eman nahi dizkiet hemendik.

## Noiz hasi zinen gitarra jotzen?

18 urte bete nituenean aitari esan nion gitarra bat nahi nuela. Ikasgai guztiak gainditzeko esan zidan, eta hala egin nuen. Gitarra erosi eta lehenengo egunean soka bat apurtu nuen, ez neukan idearik ere. Ordu asko sartu ditut, gaupasak egin ditut gitarra jotzen. Iker Diego eta Patxi Zabaletarekin asko ikasi nuen. Euren entsaioetara joaten nintzen eta asko lagundu zidaten. Laia sortu aurretik Lurgor eta Nok taldeetan ere ibili nintzen. Izenik gabeko Eibarko beste talde batean ere bai.

## Besterik?

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiet honaino iristen lagundu diguten guztiei. Elgoibarko jendeak asko lagundu digu. Ander, Haritz, Zazpikiko jendea, K-104 taldea... azken hauek oso ondo portatu dira.

### DATUAK

**Laia:** 2006ko ekaina aldera sortu zen Mungian.
**Taldekideak:**
- Juanmi: Gitarra eta ahotsa
- Igor: Gitarra
- Bernat: Bateria
- Unax: Baxua

## JESUS AZPIAZU SAN PEDRO AUZOKO ALKATEA

# «Esku batean usoa eta bestean gurutzea izango ditu Santumotz santuak»





*40 urte inguruko etenaldiaren ondoren, iaz berreskuratu zuten San Pedro auzoko Santumotz erromeria. Ohitura zaharrak berreskuratzea zen helburua, eta badirudi, aurrerantzean ere tradizio honi eutsi egingo diotela. Aurten abuztuaren 5ean ospatuko da. Jesus Azpiazu San Pedroko alkateak eman dizkigu detaile guztiak.*

**Nola erabaki zenuten Santumotz eguna berreskuratzea?**

Iaz, San Isidro egunean Debemen Elkarteko Agurtzanerekin topo egin nuen. Agustin Irusta eta Iñaki Oñederra ere han inguruan zebiltzan eta Santumotz ipuina atera genduan, haiek ere San Migeletik etortzen baitziren San Pedrora eta ezagutzen zuten. Ohitura zahar hauek berreskuratzea polita dela esan zigun Agurtzanek, eta horrela hasi nintzen. Debemenen laguntzarekin antolatu genuen.

**Zenbat urteko etenaldia izan du erromeria honek?**

Ni gaztea nintzela ezagutu nuen Santumotz erromeria. 40 urte inguru izango dira azkenekoz egin zenetik, ni orduan mutil koskorra nintzen.

**Hainbeste urteko etenaldiaren ondoren, nola joan zen iazkoa?**

Oso ondo atera zen, jende mordoa gerturatu zen. Txosna bat ipini genuen, bertsolariak, harri jasotzaileak eta trikitilariekin eta denon artean egun polita pasatu genuen. Abuztuko lehenengo domekan egingo dugu aurten ere, San Lorentzoko jaiekin batera ez tokatzeko.

**Hala ere, ez duzue tradizio hura berdin-berdin berreskuratu, ezta?**

Egia esanda, lehen gauez egiten zen erromeria. Festa iluntzean hasi eta gauean amaitzen zen. San Migeletik eta Bizkaia aldetik jende mordoa etortzen zen karburozko poteekin argia eginez. Hiru taberna egoten ziren, idiekin gurdian eramaten zituzten edariak. Guk egunez egin dugu.

> **«40 urteren ondoren, iaz berreskuratu genuen Santumotz eguna»**

**Nondik dator Santumotz ospatzeko ohitura hau?**

Santumotz Aubixatik Hiru Iturrira bitartean dagoen zelaia da, eta hantxe egiten zen erromeria. Hala ere, hasieran Santumotz izeneko santua Kalamuako puntan zegoen. Esaten da, garai batean bizkaitar eta gipuzkoarren arteko borroka egin zutela Barinagako eta Elgoibarko gizon batek. Borrokan-borrokan, urtebetean Olaburura jaitsi ziren eta hurrengo urtean Santumotzeko zelaira iritsi ziren. Han bukatu omen zen borroka. Bakearen izenean santu bat egin zen bertan eta hantxe egon omen zen urte mordo batean. Santu txikia zen eta Santumotz izena ipini zioten.

**Aurten santua izango duzue, ezta?**

Bai. Andres Egirazu artisau eibartarrak egingo digu santua. Udalak onartu dit aurrekontua eta Benantzio ere ados dago. Egurrezko santua izango da, gutxi gora behera badakigu nolakoa zen santu hura eta antzerakoa egingo digu. Bakea irudikatzeko uso bat edukiko du esku batean, eta Pello Arrieta historialariak esan zigunez, bidegurutze guztietan gurutze bat egoten zen, orduan beste eskuan gurutzea jarriko diogu. Santumotz egunerako prest izango dugu santua. Honekin batera, trikitilariak, bertsolariak eta herri kiroletan ibiltzen diren herriko gazteak izango ditugu.

PINTURA

# San Bartolome Parrokiako bobedako margoak berritu dituzte

Otsailean hasi ziren San Bartolome Parrokiako gurutze-gangan dauden margoak berritzeko lanak, eta aste honetan bertan bukatu dira. Carmen Martin Arrasateko C.M. Errestauratze Tailerreko kideak hitzaldia eskaini zuen astelehenean eginiko lana azaltzeko, eta 50 lagun inguru gerturatu ziren bere azalpenak entzutera. Bost arte zaharberritzaile eta arotz bat aritu dira lanean. 4x2,5 neurriko lau mihize berritu dituzte.



### Margoak egoera txarrean

Carmen Martinek azaldu digunez, margoak oso egoera txarrean zeuden., bai mihizea eta baita markoa ere: “oihala eta egurra hondatuta zeuden, koloreak galduta, partxe asko zituzten”. Bere esanetan, aurrez eginiko berrikuntzak gaizki eginak zeuden. Lau etapa desberdin bereizten dira berrikuntza horietan, elizako erretaulak izan dituen berberak. Bata XIX. mendearen amaiera aldera, bestea, XX. mendearen hasieran, hirugarrena 40. hamarkadan eta azkena 70. hamarkadan. Garai hartan erabilitako teknikak ez ziren egokiak eta margo orijinala kaltetu zuten. Carmen Martinek esandakoaren arabera, berrikuntza lanak ez dute inoiz margo orijinala ikutu behar, ezin da ezer margotu, dagoena berreskuratu behar da, baina beti orijinala errespetatuz.

### Berrikuntza lanak

Hasteko, margoak euren lekutik jaitsi eta sakristian jarri zituzten. Lehenengo oihalak zituen poltsa eta deformazioak kendu zituzten, ondoren puskatuta zeuden zatiak konpondu. Gero, barniz herdoildua kendu zioten gainetik eta kolore orijinalak berreskuratu zituzten. Azkenik, rigatino teknika erabiliz, kolorea falta zen lekuak margotu zituzten, baina orijinalean eragin gabe.

### Elizako lau doktoreak

Margo hauek 1722-1724 urte ingurukoak dira eta margolaria Igancio Arana izan zen. Elizako lau doktoreak irudikatzen dira bertan: San Jeronimo, San Anbrosio, San Agustin eta San Gregorio. Berrikuntza lan honen ondoren, beraien koloreak berreskuratu dituzte, eta orain, berriro ere, euren lekuan kokatzea falta da. Erretaula nagusia ere berritzen ari dira eta lan hauek abuztu ingururako amaitzea aurreikusten da.

---



Elgoibarko Udala

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

**Uztailak 14, larunbata**
**"Bertso afaria"**
20:30ean, Aubixa barnetegian.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Jon Maia.

**Uztailak 16, astelehena**
**"Bertso tribiala eta kantaldia"**
17:00etan, Mintxetako igerileku irekian.

**Uztailak 19, osteguna**
**"Bertso bazkaria eta Txitxiburduntzia"**
14:00etan, Aubixa barnetegian. Bazkalostean, trikitilariak. Bertsolariak: Fredi Paia eta Oihana Bartra.

**Uztailak 20, ostirala**
**"Bertsolariak eta trikitilariak herriko kaleetan zehar"**
18:00etatik aurrera.

Informazio gehiago: Udaleko Euskara Sailean - Tel.:943 74 43 66 (Kultur Etxean goizez)

## IBON GABILONDO TRIATLETA

# «Neguko igande hotz eta euritsuetan bizikletan ibiltzea da gogorrena»







*4 urte daramatza Ibon Gabilondok triatloiaren munduan. Betidanik gustatu zaio kirola, eta batez ere, hiru kirol praktikatzen zituen: korrika, txirrindularitza eta igeriketa. Egun batean hirurak lotzea bururatu zitzaion eta triatloietan parte hartzen hasi zen. Berarekin egon gara gaurkoan.*

**Nolakoa da triatloiaren egoera Euskal Herrian?**

25-40 urteko jendeak praktikatzen du kirol hau Euskal Herrian eta maila altua dago. Gazteak oinarrizko 3 kiroletatik etortzen dira normalean, ez dira triatloiarekin hasten. Elgoibarren antzeko egoera aurkitzen dugu baina masa txikia daukagu Zarautz, Arrasate edo Oñati bezelako herriekin alderatuz gero.

**Zertan datza triatloia?**

Kirol hau norberaren ahalmenaren mugaraino joatea da, limite hori bilatzea, bakoitzaren egoera kontuan hartuta. Muga horretara gerturatzeak betetzen du triatleta, eta konpetiziotan parte hartzeak ematen duen alizientea ere handia da. Hortaz aparte, jende sanoa eta jatorra ezagutzen da kirol honetan. Gutxien gustatzen zaidana negu parteko igande hotz eta euritsuetan bizikletan ibiltzea da, hotza ez dut ondo jasaten.

**Nola prestatzen dituzu probak?**

Proba bakoitza baino denboraldia prestatzen da. Karrera batzuk dira helburu nagusi eta horien arabera prestatzen da denboraldia. Proba batzuk prestaketa izaten dira eta besteak helburu.

**Triatloi guztiak berdinak al dira?**

Estrategia aldatzen da luzeraren arabera. Motzetan funtsezkoa da ondo igerian egin eta talde on baten sartzea bizikletarako. Luzean erregularitatea saritzen da, eta bizikletak pisu handiagoa du.

**Nolakoak dira entrenamentuak?**

Konstantzia eta diziplina ezinbestekoak dira. Astegunetan egunero ordu eta erdi egiten dut batezbeste (korrika, igeria eta gimnasioa) eta ostiralean pixkat gehiago. Zapatu eta igande goizetan sartzen ditut fondoko entrenamenduak (3-4 ordu), batipat bizikletako saio luzeak eginaz. Batezbeste astean 15 ordu inguru irtetzen zaizkit. Puntako afizionatuak 20-25 ordu inguruan dabiltza eta profesionalak 40 ordutaraino heltzen dira.

**Noiz ikusiko zaitugu Ironman-ean?**

Triatleta baten kirol bizitzan hurrengo pauso logikoa izango litzateke Ironman famatua, baina honek entrenamendu bolumena %10ean igotzea esan nahiko luke, paper on bat egitea nahi bada. Momentuz nire egungo bizimodu erritmoan; lana, bizitza pertsonala... ez dago horrelako prestakuntza bat aurrera eramateko denborarik. Ez dut ukatuko frogak inbidia ematen didanik, festa handia baita, baina aurrez egin beharreko sakrifizio guztia handiegia da. Azken finean hau afizio bat da besterik ez da, asko ematen dizu baina kendu ere bai! Agian etorkizunean bai, baina momentuz ez.

**Epe laburrerako helburuak?**

Zumaian bukatuko dut denboraldia uztailaren 14 an. Udan jarraituko dut kirola egiten baina lasaiago. Herritarrak animatuko nituzke kirol hau praktikatzera. Interesatuek Urgazira jo dezakete.

**«Astean 15 orduko entrenamenduak egiten ditut gutxi gorabehera»**

XXIII. NAHASTE BORRASTE

# Jose Antonio Ruiz eta Ainhoa Lendinez izan dira Nahaste Borrasteko irabazleak

Maila altukoa izan da Nahaste Borrasteren aurtengo edizioa. Gizonezkoen mailan Jose Antonio Ruiz izan zen helmugaratzen lehenengoa 18'37" denborarekin. Korrikalari elgoibartarra Martin Dominguezek ezarritako errekoretik bi segundura geratu zen. Emakumeei dagokienez, hiru izan ziren parte hartzaileak eta Ainhoa Lendinez izan zen bizkorrena.



**SAILKAPENA**

| Izena | Denbora | Izena | Denbora |
|---|---|---|---|
| 1 Jose Antonio Ruiz | 18´37˝ | 18 Juanjo Etxeberria | 21´58˝ |
| 2 Jon Revert | 18´48˝ | 19 Jon Urbieta | 22´06˝ |
| 3 Ibon Gabilondo | 18´55˝ | 20 Ainhoa Lendinez | 22´19˝ |
| 4 David Konde | 19´20˝ | 21 Garikoitz Muñoz | 22´34˝ |
| 5 Imanol Rodriguez | 19´50˝ | 22 Tomas Carrascosa | 23´11˝ |
| 6 Arkaitz Ruiz | 20´15˝ | 23 Adur Juaristi | 23´48˝ |
| 7 Beñat Zafra | 20´21˝ | 24 Mikel Anakabe | 24´19˝ |
| 8 Igor Dieguez | 20´26˝ | 25 Jose Luis Vitores | 24´47˝ |
| 9 Martin Dominguez | 20´42˝ | 26 Amaia Revert | 25´24˝ |
| 10 Gorka Iriondo | 20´46˝ | 27 Pedro Nogales | 25´33˝ |
| 11 Igor Mugerza | 21´19˝ | 28 Raul Carcedo | 27´38˝ |
| 12 Ignacio Perez | 21´21˝ | 29 Antonio Rodriguez | 27´57˝ |
| 13 Iñaki Ulazia | 21´21˝ | 30 Antonio Fernandez | 28´04˝ |
| 14 J.R. Ortuoste | 21´33˝ | 31 Luis Beristain | 28´05˝ |
| 15 Aitor Romera | 21´35˝ | 32 Txerra Gurrutxaga | 28´32˝ |
| 16 Dioni Ramirez | 21´40˝ | 33 Leire Barruetabeña | 32´27˝ |
| 17 Luis Anakabe | 21´52˝ | 34 Juanjo Gurrutxaga | 32´27˝ |

## 19 herritarrek hartu zuten parte Extreme Bardenas proban

1.500 lagunek hartu zuten parte Extreme Bardenas proban, horien artean 19 elgoibartarrak izan ziren. 102 kilometroko ibilbide gogorrean Iñigo Ortuoste izan zen lehenengo herritarra.



| | |
|---|---|
| Iñigo Ortuoste | 4:56 |
| Ruben Lopez | 4:57 |
| Antxon Etxaniz | 5:04 |
| Andoni Etxeberria | 5:36 |
| Unai Uzkudun | 5:39 |
| Alberto Uzkudun | 5:44 |
| David Mekolalde | 5:44 |
| Adolfo Martin | 5:46 |
| Asier Lasuen | 5:49 |
| Iñaki Goñi | 5:50 |
| Zigor Azkoaga | 5:51 |
| Iñigo Iturbe | 5:52 |
| Aitor Salaberria | 5:59 |
| Eduardo Ansola | 6:00 |
| Ernesto Ecenarro | 6:00 |
| Gotzon Arrieta | 6:00 |
| Ramon Mujika | 6:01 |
| Roberto Garcia | 6:13 |
| Luis Garcia | 6:29 |

## Giro bikaina Manu Alvarezen omenezko motokros proban

Urtero bezala, jende mordoa gerturatu zen San Pedrora, Manu Alvarezen omenezko motokros probara. 94 lagunek hartu zuten parte eta horietatik 4 elgoibartarrak. Alebin mailan, Aitor Urain (9. postua), Ibon Beristain (11. postua) eta Asier Urain (21. postua) herritarrak aritu ziren. MX1 mailan, Aitor Osoro 13. postuan sailkatu zen.



## Kirol Argazkien II. lehiaketa

Udal Kirol Patronatuak, eta Gazteria Sailak Kirol Argazkien II. lehiaketa antolatu dute, Ongarri Elkartearen laguntzarekin. Parte hartzaileek uztailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dituzte argazkiak Olaizaga kiroldegian. Hiru sari banatuko dira: herriko saria, gazte saria (35 urtera arte) eta orokorra (35 urtetik gora). Sari banaketa San Bartolome bezpera egunean egingo da, abuztuaren 23an, iluntzeko 20:30ean udaletxeko Pleno Aretoan. Ondoren, argazki guztiak ikusgai jarriko dira Kultur Etxean, irailaren 2ra arte.

## Igor Txurruka pilotaria Leintz Gatzaga torneoko finalean

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako pilotariek hartu dute parte Leintz Gatzagako txapelketan. Igor Txurruka elgoibartarrak Julen Berasategi azkoitiarrarekin osatu du bikotea, eta Leitza, Amurrio eta Asteasuko arerioak bidean laga ondoren, finalera iritsi dira. Azken norgehiagoka Bergararen kontra jokatuko dute datorren domekan, uztailaren 8an, Leintz Gatzagako pilotalekuan.

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

- Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea, jangela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **943741769**

**ALOKAIRUA**

- Emakume arduratsuak etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **699717008**
- 4 logelatako etxea alokatzen da Cadizen udarako. 400 euro asteko. ☎ **600067658**
- Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **677617031**
- Aiton-amona batentzako pisua behar da. Igogailuarekin edo kalerako irteera zuzenarekin. Erdigunean, edo gertu. ☎ **639086330**
- Pisua alokatzen da Elgoibarren. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. ☎ **630878054**
- Gasteizen pisua hartuko genuke lau ikaslek. ☎ **685764281**
- Logela alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**
- 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko. ☎ **658700164**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garaje itxia salgai Bernardo Ezenarro kalean. ☎ **615712216**
- Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**

## [ AUTOAK ]

- Seat Ibiza Sport TDI, 1.9/100hp salgai. 3 ate. Egoera oso onean. Grisa, 2005eko azarokoa. 27.000km. 2010era arteko bermea. Prezioa adosteko. ☎ **675714031**
- Peugeot 1007 ia berria salgai. 75 zaldi, abiadura aldagailu sekuentziala, gasolina, urtebeteko garantia. ☎ **650693070**
- Renault 21 GTS autoa salgai. 90 zaldi. Egoera onean, margotu berria. Gris metalizatua. ☎ **6996008536**

## [ BESTELAKOAK ]

- Kanping handia salgai. ☎ **943741451**
- Errepiderako 2 bizikleta salgai. Zeus eta Allan aluminiozko koadroak. 52 neurrikoak. ☎ **943743959 (Javier)**
- Untxartak salgai. 2 hilabetekoak. ☎ **658740788**
- Logela salgai, egoera onean. Armairu handia, 1,35eko ohea, komoda, 2 mesanotxe. ☎ **669916148/943531648**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro . Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

**ESKAERA**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **667709439**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **943531608**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943740305**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ **667397100**
- Neska lanerako prest. Oso arduratsua. ☎ **659381601**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **662250073**
- DBH2ra arteko klase partikularrak emango ditut uztailean. ☎ **695868465**
- Mutila igeltsero, kamarero edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **638905932**
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak... egiteko prest. ☎ **626394831**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ **638527915/943740367**
- LH, DBH, matematika, fisika, marrazketa... klase partikularrak udan. ☎ **653717972**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera).**
- LHtik DBH2ra arteko klase partikularrak ematen dira uztailean, goizez. ☎ **943742855**
- 2. mailako ofiziala lanerako prest. Eraikuntzan, garbiketan, kamarero... ☎ **661225149**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaindu, kamarera edo sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **626394831**
- Emakume euskalduna alzheimerra duten gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943742330/660511781**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ **639520378**

**ESKAINTZA**

- Tabernarako kamarero euskalduna behar da. ☎ **670654921**
- Pertsona bat behar da Textil Hogar Lagunak dendarako. ☎ **943744457**
- Kamareroa eta sukaldaria behar dira. ☎ **943743196**
- Pertsona arduratsua behar da 6 urteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Ordutegi malgua. ☎ **943531088**
- Mendaroko Udalean ondorengo oposaketak daude: zeregin anitzetako langile bat, zeregin anitzetako ofizial bat eta denbora partzialerako aparejadorea. ☎ **943033282**
- Txuri-Beltz tabernan asteburuetan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ **943741513/943740228**
- Zarautzen ile apaintzailea behar da. Kontratu finkoa eskaintzen da. ☎ **943890281/678659118**
- Arotz laguntzailea behar da. ☎ **653707837**
- Kamareroak, sukalde laguntzaileak eta garbitzaileak behar dira. Kontratua eskaintzen da. ☎ **688623668**
- Arropa denda batek neska euskalduna behar du. Esperientzia, informatika menperatzea eta gida baimena baloratuko dira. ☎ **943741129**
- Lorazainak behar dira Elgoibarren. ☎ **943761756**
- Jantokirako kamareroa behar da. Igandetan jai. ☎ **943740580**
- Asteburu eta jai-egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943740241**
- Fisioterapeuta behar da. 8 ordu, lan lasaia, irabazi onak. Kurrikulum-a bidali: Fisiolantaldea, Aranatar Sabin 3, behea. 48.700 Ondarroa.
- Neska edo mutil euskalduna behar da tabernarako. Astegunetan eta asteburuan txandaka. ☎ **943742897**

## ABISUAK

- Igandetik astelehenera bitartean CD mordoa eta CDak gordetzeko zorroa galdu nituen Guass inguruan. Saritu egingo da. ☎ **616610957**
- Giltz bat aurkitu dut Artekaleko eskailera mekanikoen inguruan. Amona mandangorriak ditu. Udaltzaingoan laga dut.
- Urte eta erdiko setter ingelesa oparitzen dut. ☎ **639313329**

# [ZORIONAK]



Seira ailegatu zara. Muxu handi bat eta urteak hainbeste tirakada. Martitzenean ospatzeko elkartuko gara.



Zorionak **Nerea** uztailaren 5ean 12 urte egin dituzulako. Koadrilakoen eta etxekoen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak **Gorka** uztailaren 8an 3 urte egingo dituzulako. Oso ondo pasa! Familiakoen eta bereziki anaia Anderren partez.



Zorionak **Ane!** Oso ondo pasatu genuen zure 2. urtebetetze egunean. Txokolatezko bi muxu Ikastolako lagunen partez.



Zorionak **Aroa** hilaren 8an 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat denon partez, bereziki, Maialenen partez.



Zorionak **Jurdana** datorren asteazkenean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak **Leire** uztailaren 8an 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta Joneren partez.



Zorionak **Lore** 13 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



Zorionak **Imanol** hilaren 5ean 11 urte egin zenituelako. Muxu pila bat gurasoen eta Juneren partez.



Zorionak **Manuel** hilaren 4an zure eguna izan zelako. Zure laranja erdiaren eta semeen partez.



Zorionak **Nerea** bihar 10 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez muxu bat.



Zorionak gure etxeko printzesari.



Zorionak! Ondo pasa zure 1. urtebetetze eguna! Muxu erraldoi bat Ikastolako lagunen partez.



Zorionak **Asier** hilaren 9an 10 urte egingo dituzulako. Marcos, Iria eta familiakoen partez. Ondo pasa!



Zorionak **Juanjo** zure urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, alaba Ane eta Mariaren partez.



Aupa **Ander!** Mila zorion zure egunean!



Kaixo gure **bihurriak!** Handia izango da utziko duzuen hutsunea. Eibarren oso zoriontsu izan zaiteztela. Ikastolako lagunak. Etorri bisitan!



**"Fermintxoek"** dagoeneko eskua bete urte. Zorionak etxeko guztien partez.



Iritsi da San Fermin! Abuztuaren 11 ere laster etorriko da. Zorionak eta muxu bana **Oier eta Aimarri.**

Zorionak Herri Eskolako **Ainhoa Aizpuru** andereñoari irakasle oso ona delako. 2B gelako ikasle eta gurasoen partez.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

## [ OKINDEGIA ]




6 igandea EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

6 Etxeberria *(Santa Ana)*
7 Ibañez
*(* Goizez Yudego)*
8 Ibañez
9 Yudego
10 Zabaleta
11 Etxeberria *(Santa Ana)*
12 Ibañez
13 Bidasolo

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45, 18:45, 20:45
Larunbatak: 7:05, 7:15, 9:05, 10.45, 11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05
Igandeak eta jaiegunak: 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40, 21:05

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45, 21:00
Larunbatak: 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00
Igandeak eta jaiegunak: 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 902 543 210*

## [ 7 ZAPATUA ]

**08:00 SAN FERMINETAKO ENTZIERROAK ZUZENEAN**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Uztailaren 7tik 14ra bitartean, egunero

**18:00 ALKOHOLIK GABEKO JAIA ETA BIDEOKLIPEN EMANALDIA**
Madalako parkean
Antolatzailea: Eliza Ebanjelikoa



Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a
Idama
Ekaineko irabazlea: ANA MARIA LASA
Uztaileko saria: WELLA ILE-LAKA ETA ILE-APARRA + ILE-LEHORGAILUA
Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26





Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7
Tel: 943 74 16 76

## [ 11 EGUAZTENA ]

**19:00 ATE IREKIEN EGUNA**
**IMH-N**
IMHn

## [ 12 EGUENA ]

**19:00 BIDEO EMANALDIA**
18/98 plataformak prosezuaren inguruko bideoa eskainiko du Kultur Etxeko hitzaldi gelan



# ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** PLAZA HANDIAN




**«The Host»**
6, barixakua: 22:30
**"Las vacaciones de Mr. Bean"**
7, zapatua: 22:30
**«El novio de mi madre»**
13, barixakua: 22:30
**"Azur eta Asmar" (euskaraz)**
14, zapatua: 22:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«Zodiac»**
6, barixakua: 19:00-22:15
7, zapatua: 19:00-22:15
8, domekia: 19:00-22:15
9, astelehena: 19:00-22:15
10, martitzena: 19:00-22:15
11, eguaztena: 19:00-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

# SINOPSIAK

## «The Host»

Zuzendaria: Bong Joon-ho.
Antzezleak: Song Kang-ho, Byun Hee-bong.
Seulgo bizilagunek harriduraz begiratzen diote Han ibaiaren gainean zintzilik dagoen objektu arraroari. Harridura izu bilakatuko da, bere bidean gurutzatzen den oro irensten duen munstro mutantea dela konturatzen direnean. Ibai ertzean kioskoa duen gizon batek ikusiko du munstroak bere alabatxoa nola bahitzen duen. Ejertzitoa saiatuko da munstroa akabatzen, baina ezin. Gure gizonari ez zaio adorerik falta eta bere kasa munstroaren bila joango da.

## «Las vacaciones de Mr. Bean»



Zuzendaria: Gus Van Sant.
Antzezleak: Rowan Atkinson, Willem Dafoe.
Frantzia hegoaldera bidaia bat saritzen zuen zozketako irabazlea izan da Mr Bean, Rowan Atkinson aktoreak horren ezagun egin duen pertsonaia xelebrea. Cannes-ko Zinemaldi ospetsua egiten ari diren bitartean joatea egokituko zaio gainera, eta aurreikus zitekeen moduan, ez du denbora asko behar izango dena hankaz gora jartzeko: Mr Bean non, kaosa han. Bereak eta bi egingo ditu Mr. Bean xaloak, baina beti bezala, denetatik, edo ia denetatik, onik aterako da gure gizontxoa.



**1974**. urteko erretratu zahar hau **Juan Cruz Oteizak** laga digu. Elgoibarko Aprendizaje Eskolako 3. mailako ikasleak agertzen dira bertan. Ikusten den bezala, musika talde bat osatu zuten eta emanaldia ere eskaini zuten, ikas bidairako dirua lortzeko. Gogora ditzagun zein diren gazte hauek:

Goian: **Gerardo Araujo, Juan Cruz Oteiza, Artetxe, Jose Mari Diego, Jose Luis Alonso, Sabino Bollar, Jose Luis Urbieta, Enrique Gabilondo, Alberto Zubizarreta (†), Maria Luisa Rincón.**

Erdiko ilaran: **Martinez Lariz, Jose Luis Arriola, Garcia Calleja, Blanco, Santos Fernandez, Ramon Garate.**

Beheko ilaran: **Montse Ondarza, Jose Luis Bollar, Ignacio Larramendi, Enrique Perez, Jose Ramon Elorza, Juan Mari Garitagoitia, Jose Luis Ansola, Tomas Conde.**



## ESKERTZA

2007ko uztailaren 1ean hil zen
***Manuela Muguerza Izaguirre***ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# AXIER, S.L.

Garagarza, 1 - MENDARO
Tel.:943 75 71 60 - Fax.:943 75 50 72
e-posta: axiersl@axiersl.com

Gure filosofia: **zerbitzu onena**

- Ekipamendu osoa berritu dugu teknologia berrienekin.

Lehen helburua: **kalitate osoa eta ingurugiroa errespetatu.**

- ISO 9001 eta enpresa ekologiko denaren ziurtagiriak eskuratu ditugu.

Proiektuaren 3 ardatz nagusiak: **komunikazioa, lana eta konponbideak.**

AUTOENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

*Etorri eta ikusiko duzu!!!*

Euskal Herrian CORGHI makineriaren banatzaile ofiziala.



ingeniaritza imh

# IMH Ingeniaritza Eskola

## Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

- ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako ildoan indarrean dagoen titulu ofiziala lortu
- atzerrian praktikak egin

ate irekiak

Uztailaren **11**n
**19:00**etan

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola ezagutzera

*zure txanda!*

Informazioa:
IMH INGENIARITZA ESKOLA
Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es






groupe cesi Frantziako CESI Ingeniari Titulu ofiziala

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Ezenarro arotzerixia**
Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibamar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Peio**
Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com